

aikor.

TOKIKOM

2026ko apirila • #267



PEDRO MARI GOIKOETXEA LINAZA

Erretirorik ez

TXAKO

mic!

Apirilak 17-18 Abril

Mendibile Jauregia
(Leioa)

Marrazketa zuzenean
Showcooking
Dastaketak
Tailerrak
Musika

GALIZIA

Herrialde gonbidatua

Apirilak 19 Abril

Txakolin Museoa
Txakolingunea (Bakio)

Dibujo en vivo
Showcooking
Catas
Talleres
Música

GALICIA

Región invitada



Zurrut!

Komiki eta Ilustrazio Azoka
Feria de Cómics e Ilustración

Informazioa eta erreserbak
Información y reservas

bizkaikotxakolina.eus/txakomic



EUSKADI
BASQUE COUNTRY



aikor.

Argitaratzailea:

TOTOAN Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorrizketan, Altzora, Darabilgu eta Tximintx komunitatea)

Zuzendaria:

Xabier Goienetxe

Erredakzio burua:

Mikel Reina Barros

Maketatzailea:

Aner Mentxaka Alvarez

Publizitatea:

Ruth Bilbao (688 782 642)

Kolaboratzaileak:

Peru Calabaza Saban
Ana Mezo Basaras
Idoia Andres
Juanjo Ortiz
Gaizka Peñafiel
Nagore Lopategi Escallada
Txerra Rodriguez
Iñaki Olabarrieta
Jose Angel Mentxaka
Estitxu Pérez Castro

Inprimategia:

Gertu

Banaketa:

Pac publicidad

Ale kopurua:

8.000

Lege gordailua:

BI 137-02 ISSN 1578-9322

aikortxori@aikor.com

688 864 135 · 747 406 561

aikor aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik.

CC BY-SA 3.0

Aitortu - Partekatu Berdin 3.0 Moldatu gabea



SUMARIOA

- 4 Iritzia
- 6 Berri laburrak
- 14 Gurean izan da
Eñaut Elorrieta Larruzea
- 16 **Beste Bira Loiu**
- 18 **Txoriberri**
- 20 **Pedro Mari Goikoetxea**
- 24 **Larrabetzuko Maskarada**
- 28 Atzera begira
- 29 Zozketak
- 30 EMAUS
- 31 Mihigintza
Uste baino gutxiago dakigu, baina uste baino gehiago erabiltzen dugu
- 32 Menditik patxadaz
Erotismoa ermitetan
- 34 Herbarioa
Berakatza
- 36 Sukaldaritza
Arroz esnez beteriko sagar hoditxoak
- 37 Denbora-pasak
- 38 Apirileko agenda



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK BABESTUTAKO HEDABIDEA



IRITZIA

Irakurzaletasuna maitasunetik, mesedez

Gaztetxo nintzela, amak behin, erdi brometan erdi seriotan, zera esan zidan: norbait ezagutu eta bere etxera joaterakoan, han libururik ez baldin badago, irten korrika berehala.

Duela hiru urte, alaba Derioko institutuan nobela bati buruzko azterketa baterako ikasten ari zela, bere irakasleari idazteko ausardia izan nuen. Kontatun nire ikasle garaian Mikel Hernandez Abaitua idazlea izan nuela euskara irakasle, eta berak egiten zuena: berarekin genituen hiru eskola orduetatik bat irakurtzen ematen genuen, astero.

Institutuko liburutegiko liburuak (eta bere etxeakoak ere, esango nuke) ekartzen zituen gelara, liburu mordoxka bat, eta ordubetez nahi genuena irakurri genezakeen. Liburu batekin probatu eta gustoko ez izanez gero beste bat hartu; gustoko izanez gero, aldiz, liburua etxe-

ra eramatea genuen. Batzuetan, musika ere jartzen zigun, jazza edo klasikoa, kasatetan, irakurketa tarte haiek atsegina-
go egiteko.

Inoiz ez zigun inolako azterketa edo frogarik egin bertan irakurtzen genuenari buruz.

Ez dut gogoratzen asteko beste bi euskarako orduetan zer egiten ote genuen (ez eta ikasturte hartako beste ikasgaietan ere, egia esan), baina irakurketarako tarte hura biziki gogoratzen dut, eta nire irakurzaletasunean asko eragin zuela ere lasai esan dezaket.

Irakurzaletasuna sustatzeak, nere ustez, hezkuntzaren helburu gorena izan behar du, nor bere kabuz jakintzatara ailegatzeko biderik aberatsena delako, pentsaera konplexua garatuz eta espiritu kritikoa aberastuz, plazer iturri amaigabea izateaz gain. Irakurzaletasuna pre-

PERU CALABAZA SABAN
Idazlea eta hezitzailea



siorik gabe sustatu behar dela ere argi daukat, ez baldin badugu harekiko herriarik eragin nahi. Hamar urteko umeei 'irakurtzea gorroto dut' esaten entzuten diet askotan, eta kezkarria da, zaindu beharreko kontua.

Gauzak beste era batera egin daitezkeela esan beharra dago: betebeharetik baino plazerretik eta maitasunetik ikasten diren gauzak betiko ikasten direla, alegia.

Pantailak monstroutzen ez naiz hasiko orain, baina nabaria da galdu dugun kontzentrazio gaitasuna eta arnas luzeko jarduera luzeak egiteko dugun zailtasuna, garai hauek jartzen diguten erritmo honetan. Kontuz ibili beharko genuke, mezu sinple eta laburren ekosistema hau autopista aproposa baita inguruan dauzkagun faxismoen mezuak hedatzeko. Eta horrek bai ematen du korrika irtetzeko gogo... baina korrika nora?

Zaintzaren ertzak

Urte batzuk dira Mugimendu Feministak zaintza publikoaren eta komunitarioaren gainean zehaztasun batzuk egin zituenetik. Geroztik, denori ahoa bete egin zaigu hitz magiko eta garrantzitsu horrekin, sarritan jakin barik zeren gainean ari garen. Euskal Herriko herri askotan lanean ari dira, zaintza publikoa eta komunitarioa zehaztu nahian, diagnostikoa egin ondoren proposamenak egiten.

Bada, Txorierri, Larrabatzun ere, badago Zaintza Taldea lanean. 2024an hausnarketa, diagnostikoa eta proposamenak egiteko prozesu parte-hartzailea abian jarri zen. Udalak herritarrekin batera Zaintza Taldea osatu zuen. Emagin Elkartea arduratu da lana aurrera eramateaz. Profil desberdinetako bost zaintzaile talderekin elkarriketak egin ziren eta horietatik eskaerak, proposamenak eta erronkak etorri ziren.

2025ean, Euskal Herriko beste herri batzuetako esperientziak entzuteko aukera izan genuen: zaintzaileen zaintza egiteari buruz, bakardadeari aurre egiteari, desgaitasuna duten pertsonen errotze komunitarioa sustatzeari eta landa eremua eta eguneko arretari buruzkoak.

2026ra heldu gara eta lan plana prest dago hurrengo urte bietarako, hau da, 2026 eta 2027rako. Planak lau eginkizun nagusi ditu. Ekintzak eta arduradunak ere zehaztu dira.

Bestelakoak ere hobetu behar dira. Batetik; Euskal Herrian zaintzaren gainean egiten ari dena, lanak, planak eta abar ezagutzea eta bestetik; Txorierriko herri guztietan Zaintza Taldea osatzea, elkar elikatzeko eta laguntzeko.

Herritarrok zaintzak ertz asko dituela argi dugu, besteak beste, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak Euskal Au-

ANA MEZO BASARAS
Euskal Herriko Pentsiodunen
Elkarteko kidea



tonomi Erkidegoan aurkeztu zuen Herri Ekimen Legegilea. Gobernua osatzen duten bi alderdiek ez zuten ahalbidertatu ekimenaren eztabaida eta ondoren bozkatzeari. Herri Ekimenean gutxienezko pentsioak gutxienezko soldatarekin parekatzeko diru osagarria eskatzen zen. Proposamenak aurrera egin bazuen Legebiltzarrean, instituzio honetatik zaintzari benetako ekarpena egingo zitzaion, miseriazko pentsioekin bizi direnei elikadura, osasuna eta abar, hobeak izateko aukera emanek. Ezin dugu ahaztu ia 100.00 pentsiodun bizi direla egoera larrian, gehienak emakumeak badira da, hain justu, bizia etxe barruko zaintza lanetan emateagatik. Edozelan ere, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak esanda dauka, borrokan 8 urte bete diren honetan, finkatutako helburuak lortu arte jarraituko duela kalean eta alderdiak interpelatzeko.

**MUSIKA TALDEA DAUKAZU?
BAKARLARIA ZARA?**

**TXORIERRIKO MUSIKA TALDE ETA
BAKARLARIEN GIDA OSATUKO DUGU**
(gutxienez partaideetako bat txorierritarra izan behar du)

GIDAN AGERTZEKO, IDATZIGUZU:
aikortxori@aikor.com
☎ 747 406 561

**TXORIERRIKO
MUSIKA GIDA**



Indarkeria matxistaren biktimentzako erantzun protokolo berria, Sondikan

Sondikako alderdi politiko guztiek, Emakumeen Kontseiluarekin eta Garrasia elkarte feministarekin batera, indarkeria matxista kasuetan instituzionalki zelan jardun adosteko protokolo berria landu dute.

Gidaliburuaren oinarria “biktimen erreparazio integralerako eskubidean dago” testuan oinarritu dute. Lau helburu nagusi dituzte: “Jarduketa esparru bateratu, arin eta eraginkor bat ezartzea; erantzun lehenetsia, arina eta eraginkorra bermatuko duten mekanismoak martxan jartzea; udaleko arduradun politiko eta teknikoentzat erreferentziatzeko tresna izatea; eta azkenik, herritarren pedagogia sustatzea eta ikuspegi feminista txertatzea”.

Protokolo berria “irekia” izango dela diote. Hau da, esperientziekin, beharizan berrieekin eta ikaskuntza kolektiboekin eboluzionatuko du. “Indarkeria matxista gizarteak, modu bateratu eta irmoan, ezabatu beharreko gaitz larrienetakoa da. Hori pairatzen dutenen alboan egon behar dugu eta, aho batez, herri bezala, gaitzetsi. Horregatik eta horretarako adostu dugu protokoloa”, adierazi du Naia Landa alkateak.

BERRI LABURRAK



140 putxera, inoiz baino putxera gehiago, Euskal Herriko Txapelketan

Otsailaren 28an, Loiuk hartu zuen Euskal Herriko Putxera Txapelketa, eta inoiz baino parte hartze handiagoa izan zuen. Eguraldia lagun, iaz baino 30 putxera gehiago aurkeztu dira, guztira 140. Josu Andoni Begoña alkatea “oso pozik” agertu zen parte hartze datuekin: “Loiuztarren konpromisoa erakusten dute”. Sodupeko Xabier Zubiaga Alayak irabazi

zuen Euskal Herriko Putxera Txapelketa, bigarren Gernika-Lumoko Jose Antonio Zumalakarregi Belaustegigoitia izan zen eta hirugarren Sopelako Andres Zarraga Aurrekoetxea. Loiuztarren artean, putxerarik onena Eduardo Souto Odriozolarena izan zen, bigarrena Miren Itziar Llona Iturregirena eta hirugarrena Ziortza Zarraga Llonarena izan zen.

Bide elektronikoak aurrez aurreko arreta gainditu du lehen aldiz Derion

Derioko Udalak duela urtebete inguru martxan jarritako administrazio elektronikoak “aurrerapauso sendoak” ematen jarraitzen du. Urtebetean, 7.459 sarrera erregistratu dira guztira, eta horietatik 3.833 bide elektronikoaren bidez egin dira.

Datu “esanguratsua” dela diote, izapidetze digitalak Gertuan zerbitzuan aurrez aurreko arreta gainditu baitu, 3.626 bisita zenbatuz. Diotenez, herritarrek “gero eta gehiago” baloratzen dituzte sistemaren abantailak: 24/7 erabilgarritasuna, itxaronaldiak murriztea, izapideen jarraipena denbora errealean egitea eta papera gutxiago erabiltzea. Hasierako helburua argi zuten: “Udal zerbitzuak herritarrengana hurbiltzea, irisgarritasuna eta eraginkortasuna hobetuz, aurrez aurreko arretari uko egin gabe, zerbitzu inklusiboa bermatzeko”.

Funtzionamenduaren lehen urtea-

ren ondoren, balorazioa “oso positiboa” dela diote, “digitalizazioak udal modernizazioa eta gardentasuna indartzen jarraitzen du”. Alde horretatik, Esther Apraiz Derioko alkateak azpimarratu du administrazio elektronikoa “herritarren egunerokoa errazteko tresna” izan behar dela: “Digitalizazioari esker tramiteak azkarrago eta erosoago egin daitezke, baina aldi berean arreta pertsonalizatua mantentzen jarraitzen dugu, inor atzean gera ez dadin.”

Plataforma digital honen bidez, herritarrek gero eta izapide gehiago egin ditzakete udaletxera hurbildu behar izan gabe. Ohiko izapideen artean, udal-errol-darekin lotutako kudeaketak, diruzaintzako gaiak – hala nola ordainketak helbideratzea, hobari-eskaerak (ibilgailuak, OHZ, etab.) edo ordainketen zati-kapenak – eta hirigintza-arloari lotutako izapideak nabarmentzen dira.



BERRI LABURRAK



“Gaur atzo baino indartsuagoak gara, ez gara geratuko helburua lortu arte”

Greba orokorreko ELA, LAB, Steilas, Etxalde eta Hiru sindikatu deitzaileek esan dute greba euskal langile klasearen “indar erakustaldia” izan dela. Bilboko goizeko manifestazioan 45.000 lagun elkartu ziren eta eskualdeko mobilizazioa Derion egin zuten arratsaldean.

“Grebaren arrakastak eta mobilizazio masiboek erakusten dute euskal gizarteak ez duela amore emango 1.500 euroren aldarrikapenean”. Argi utzi dute sindikatu deitzaileek martxoaren 17ko greba orokorraren balorazioa egiterakoan.

Duela urtebete baino gehiago jarri zen martxan hemengo errealitateari egokitu-tako gutxieneko soldata baten aldeko dinamika. Gutxieneko soldata propioa neurri “beharrezkoa, bidezkoa eta bideragarria”

dela diote. Era berean, gogoratu dute patronalak eta gobernuek sindikatuen ekimena mespretxatu zutela, eta abian jarritako bi bideak itxia adostu zutela: negoziazio kolektiboarena eta bide politikoa.

Grebak, ordea, bestelako bideak ireki dituela diote. “Gaur atzo baino indartsuago gaude, eta bai alderdi politikoak, bai patronalak, horretaz ohartu dira. Ez gara geratuko helburua lortu arte”.

Gainera, azpimarratu nahi izan dute grebak izan duen “eragin mediatikoa, sozial eta politikoa”. “M17 ez da egun arrunta izan. Euskal langile klasearen ahotsa entzun da lantokietan eta kalean. Gutxieneko soldata propioa eta, oro har, aberastasunaren banaketa eztabaida politiko eta sozialaren erdigunean kokatu dira”.

Erandioko Udala autokarabanentzako aparkalekua eraikitzen hasi da

Administrazio izapideak amaituta, Erandioko Udalak autokarabanentzako aparkaleku berri bat eraikitze lanak hasi ditu Erandiogoikoa auzoko Arteaga inguruan. Udaletik esan dute “turismo jasagarria bultzatzeko eta horrelako ibilgailuak udalerrian aparkatzeko antolatze egindako apustu” bat dela, baita on egingo diola “turismo eskaintza indartzeari eta merkataritza jardueraren dinamizatzeari ere”.

Goikoeleizalde-Gaztelumendi bideko lanak, martxan

Herritarren aspaldiko eskaerari kasu eginez, Goikoeleizalde eta Gaztelumendi auzoak batzeko oinezkoentzako zabalduko du Larrabetzuko Udalak. Hain zuzen ere, urte hasierarekin batera eman zieten hasiera lanei. Goikoeleizaldeko Jauregi Apespiakua bidea egokitu eta oinezkoentzako bakarrik izango den hartxintzarrez eginiko bide bat zabalduko dute. Horrela, BI-2713 errepidetik oinez ibiltzea sahiestu nahi dute.

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

Ford Goiri'78
ZERBITZU OFIZIALA

944 532 515
goiritaller@fordgoiri.com

BOSCH Service ATEKA
Bosch Car Service

946 740 456
ateka@bosch-bcs.com

Txorierri Etorbidea, 46 - Pab. 5C - 5D
SONDIKA

Centro Dental Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhua Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mitxine 7, behea - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885
www.cdtxorierri.es

ORTODONCIA21

Lezamako Udalak herrian emandako eraso matxista salatu du

Lezamako Udalak erantzun instituzional publikoa atera du herrian gertatutako eraso matxistaren aurrean. “Argi eta garbi” gaitzetsi ditu erasoak eta biktimarekiko eta bere ingurunearekiko “laguntza eta hurbiltasun guztia” erakutsi dute, baita “baliabide guztiak” eskura jarri ere.

“Azpimarratu nahi dugu indarkeria matxista giza eskubideen urraketa larria dela, eta lehen mailako arazo soziala, emakumeen eta LGTBQIA+ kolektiboko pertsonen duintasunaren eta osotasun fisiko eta moralaren aurkakoa”. Horregatik, Lezamako Udaletik beraien konpromisoa berretsi nahi izan dute “indarkeria matxistarik gabeko bizitza bermatuko duten politika onuragarrietan lan egiten jarraitzeko”.

Horrez gain, nabarmendu dute ez dela “kasu isolatu bat”: “Gure gizartea egituratzen duen sinesmen sistema batean oinarritutako jokabide eta baliore sare baten parte da, emakumeek gizonekiko duten mendekotasunari eusteko eta gizarte honetan beste adierazpen eta portaera modu batzuk ez ahalbidetzeko”.

Aresti kaleko aparkalekuetan aldaketak, Kultura Etxeko estalkiaren obregatik

Martxotik, Aresti kaleko aparkalekuetan, Kultura Etxearen aurrean, aldaketak izango dira. Eragina gutxi gorabehera 4 hilabetekoa izatea aurreikusten dute. Kultura Etxeko plazaren estaldura proiektuko obrak hasiko dituzte. “Helburua da herriko gune sozial garrantzitsu hau urte osoan erabili ahal izatea, eguraldia edozein dela ere. Proiektu berriak egituraren diseinua optimizatu du, materialak modu eraginkorragoan erabiliz eta ingurunearekin eta eraikinarekin integrazioa mantenduz”, adierazi dute Zamudioko Udaletik.

BERRI LABURRAK



'Peña' biltegia eraitsi dute

1952an eraiki zuten eta hamarkada luzez bertan egon zen 'Peña' burdindegia. 2016an, denda herriko beste lokal batera lekualdatu zuten. Merkatalgune bat eraiki

kiko dute bertan. Derio “berriaren” eraikin zaharretakoa zen 'Peña' biltegia. Txorierri Etorbidean eraiki ziren lehen eraikuntzetatik, udaletxea bakarrik mantentzen da.

Derioko Udalak hasierako onarpena emandio fatxadak garbitzeko dirulaguntzei buruzko ordenantzari

Araudi berriak udalerriko eraikinetan pintadak eta grafitiak ezabatzeko laguntzak arautuko ditu, eta “herriaren irudia” hobetuko duela uste dute. Udalerriko jabe-erkidegoak dirulaguntza hauek eskatzera animatu dituzte. Horrela, pintadak eta grafitiak kentzeko lanak osorik edo zati batean finantzatu ahal izango dira.

Udalak hainbat helburu ditu. Batetik, eraikinen “fatxaden garbiketa eta berreskurapen estetiko bultzatzea” eta herriaren “irudia” eta herritarren “bizi-kalitatea” hobetzea. Bestetik, herri ingurunearen “degradazio estetiko prozesuak” prebenitzea. Azkenik, “lankidetzako publiko-pribatua sustatzea” herriaren mantentzean.

Esther Apraiz Derioko alkateak esan du ordenantzarekin “beste pauso bat” eman dutela “Derio zainduago, adeitsua eta ingurunearekiko begirunetsua baten alde”: “Jabeek pintaden eta grafitien aurrean jardun ahal izatea erraztu nahi dugu, gure udalerraren irudia eta herritar guztien ongizatea indartzeko”.

BALDINTZAK

Onuradun izan daitezke eraikinen jabe diren pertsona fisiko edo juridikoak, jabeen erkidegoak eta eraikin publikoen erakunde titularrak, “baldin eta araudian eta dagokion deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte”. Dirulaguntzak norgehiagoka-erregimenean emango dira, eta zenbateko zehatzak deialdi bakoitzean zehaztuko dira, aurrekontu baliabideen arabera.

Hasierako onespen honen ondoren, ordenantza argitaratuko egingo dute eta jendaurrean jarriko dute. Epe horretan, herritarrek alegazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera izango dute. Behin aztertuta, testua berriro Udalbatzara itzuliko da “behin betiko” onartzeko eta, ondoren, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da; une horretan sartuko da indarrean.

Derioko Udalak udalerriko jabe-erkidegoak dirulaguntza hauek eskatzera animatu ditu, “eraikinen fatxadak egoera onean mantentzen laguntzeko eta gure udalerraren herri irudia hobetzeko”.

BERRI LABURRAK



Domeka borobila Uriarte Gordon neba-arrebentzat

Sondikoztarrek txapela jantzi zuten martxoaren 22an. Aialak Emakume Master Cup txapelketako promesa mailako txapeldun izendatu zen Galardirekin batera. Adrianek, aldiz, Zarauzko II. Eskupilota Txapelketa irabazi zuen Seguro-larekin. Biak ala biak Lezamako Pelota Klubeko pilotariak dira.

Bete-betekoa izan da domeka Sondikako Uriarte Gordon familiarentzat. Aialak, Galardirekin bikote osatuz, 18-10 irabazi zieten Eibarko Astelena pilotalekuan Galdos eta Berasaluzeri. Txapeldu-

nek bikote bezala asko batu zutela esan dute antolatzaileek, "Galardi atzean oso zorrotz aritu zen eta Uriartek aurrean tantoak ederki amaitu zituen". Aurrean, Onintza Galdosek "lan txukuna" egin zuen arren, Berasaluzek ez omen zuen bere egunik onena izan.

Zarautzen, Adrian anaiak lan gehiago egin behar izan zuen senior mailako txapela janzteko. Gazteleku klubeko Seguro-larekin batera, 22-16 hartu zituzten mendean Markina-Xemeingo Egurrola eta Buruzgain klubeko Okiñena.

Aldundiaren bizikleta publikoak Sondikara, Deriora eta Zamudiora ailegatuko dira

Bizkaiko Foru Aldundiak BizkaiBizi 2.0 proiektua onartu du: bizikleta partekatuen sistema publikoaren bigarren fasea. 2027rako 113 udalerritarra hedatu nahi dute sistema, Txorierrin, Sondikara, Deriora eta Zamudiora.

"Proiektuak eredu operatibo bakarra sendotuko du, lurralde berdintasuna, garraio publikoarekiko integrazioa, iraunkortasuna eta erabiltzaile guztientzako esperientzia homogeneoa bermatzeko diseinatu". Udalak pixkanaka sartuko dira sisteman, borondatezko eta mailakako hitzarmenen bidez. Proiektuak urtean 3,8 milioi euroko inbertsioa aurreikusten du.

Garraio, Mugikortasun eta Turismo foru diputatuak, Sonia Pérez Ezquerak, fase berri honen garrantzia azpimarratu du: "BizkaiBizi 2.0 ez da soilik bizikleten zerbitzu bat; udalerririak konektatzen dituen, eguneroko mugikortasuna errazten duen eta berdintasuna sustatzen duen proiektua da. Gehitu dugun bizikleta bakoitza Bizkaia jasangarriago, osasungarriago eta pertsona guztientzat eskuragarriago baten aldeko apustua da".



SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

KAFETEGIA · OKINDEGIA

LA MODERNA

Egunero, 06:00etatik zabalik



Aretxalde, 64 · LEZAMA · 946 095 091

E.Bilbao Bidaiak



Eskola garraioa
Kirol elkarteak
Ezkontzak
Txangoak
Jubilatuaren bidaiak
Sagardotegiak
Kongresuak

eneko@bilbaobidaiak.eus
663 231 001



Industriaren Defentsarako Taldea Parke Teknologikoan elkartu da

Imanol Pradales Lehendakariak martxoaren 11an iragarri zuen Bizkai, Araba eta Gipuzkoako industria babesa aktibatuko duela Ekialde Hurbileko gatazkak duen eraginari aurre egiteko. Aurreratu du "lehen neurri sorta bat" direla, "egoera luzatzen eta zailtzen bada ere".

Pradales euskal industriaren, merkataritza ganberen, klusterren, foru aldundien, Confebasken eta herrialdeko sektore produktiboen 50 ordezkari nagusirekin elkartu zen. Lehendakariak ohartarazi zuen "faktore erabakigarria" dagoela Ekialde Hurbilean sortutako egoeraren eraginean: Gatazkaren iraupena. "Ekonomiaren eta jendearen poltsikoaren gaineko eragina desberdina izango da aste gutxi edo hilabete batzuk luzatzen bada".

"Industriak eta industriako enpleguak kezkatzen gaituzte. Eta krisi honek jendearen poltsikoetan nola eragiten duen kezkatzen gaitu, energiaren, garraioaren edo oinarritzko produktu askoren prezioen bidez", azpimarratu zuen. Pradalesek ohartarazi zuenez, Ormuzeko itsasartearen blokeoa luzatuz gero, "energia kostuetan, hornidura kateetan eta merkatu batzuetako eskarrian ondorio gogorak izango ditugu".

Iranen inguruko gatazka "2022tik euskal industriarentzat mehatxu energetiko eta logistikoko handiena" dela azpimarratu zuen. "Aurrea hartzeko, ahaleginak koordinatzeko eta industria ezkutua edozein agertokiren aurrean aktibatzeko". Ekialde Ertaina Euskadiko zazpigarren xede esportatzailea da, 1.130 milioi eurekin urtean. Une honetan, 42 euskal enpresak 63 ezarpen komertzial dituzte eskualdean, eta gatazkaren ondorioak zuzenean pairatzen ari dira.

BERRI LABURRAK



Sondikako Udalak "garai berrietara moldatutako irudi berria" aurkeztu du

Otsailaren 28an, Kultur Etxean egin dako ekitaldian aurkeztu zuen Sondikako Udalak bere irudi berria. Bestek beste, Danel Arteaga musikariak, Ane Uruburu dantzariak eta beste hamarretik gora herrikideek parte hartu zuten.

Irudi berria, Asua ibaiaren eta 'S' letra-aren formatatik jaio da, udalaren kolore urdina mantentzen du eta Sondikaren muina diren balioak ditu ardatz: "Komunitatea, oreka eta hurbiltasuna". Irudi berriak komunikazio bisuala "eguneratu, ordenatu eta bateratzeko" helburua dauka: "Gaur egungo kanal eta euskarri digital zein fisikotara egokituta eta, udalak adierazi legez, ez du armarri ofiziala ordezkatzeko ezta moldatuko ere". Irudi berri honekin, udal-komunikazioaren "irakurgarritasuna hobetzen" dela diote eta euskarri guztietan "koherentzia bisuala" bermatzen dela.

Naia Landa alkateak uste du "marka grafiko moderno baten beharra" zuela Sondikak: "Garai berrietara moldatuko zena eta Sondikaren izaera eta balioak

irudikatuko zituen. Irudi berri honekin lortu dugula uste dugu. Eta Sondikaren muina sondikoztarrak direnez, Kultur Etxean, herriko jendearekin inguratuta gura izan dugu aurkeztu. Beraiena da irudi berri hau".

HERRITARRAK, ERDIGUNEAN

Marka berriaren aurkezpen ofiziala sondikoztarrak omentzeko ekitaldi batean bihurtu zuen udalak. Ordubete inguruko aurkezpenean herriko pertsona nagusi, heldu, gazte eta txikiak izan ziren protagonistak. Lander Otaola aktoreak egin zituen aurkezle lanak eta, zuzenean, oholtza gainean, elkarrizketatu egin zituen Sondikan hainbat belau-naldi daramatzaten familietako kideak, herriko talde eta elkarteetan parte hartzen duten gazteak eta Sondika bizitoki aukeratu duten lagun heldu berriak. Musika eta dantza emanaldi bana ere izan zuen ekitaldiak, Danel Arteaga eta Ane Uruburu sondikoztarren eskuetatik, hurrenez hurren.

Sei hilabeteko iraupena izango dute Arbolantxa kalea berritzeko lanek

Proiektua 'Zamudio Parti herritarren' parte-hartze prozesutik sortu zen, auzoko bizilagunen beharrak eta proposamenak jasoz. Lanok sei hilabeteko iraupena izatea aurreikusten dute. "Helburua da oinezkoiei

lehentasuna ematea, espazio publiko irisgarriago, seguruago eta erosoagoa sortuz. Horrela, Zamudiok eguneroko bizitzarako atsegina den hiri-eredu baten alde egiten jarraitzen du". esan dute udaletik.

BERRI LABURRAK



Haritz Azurmendi lezamarrak Zumaiako sari nagusia irabazi du

Otsailaren 28an, Zumaiako sari nagusia irabazi zuen Haritz Azurmendi lezamarrak esprintean erabakitako lasterketa berdinduan. Euskaldun Torneoko lehendabiziko proba izan zen, beraz, Azurmendik liderraren mailota jarri duen lehen txirrindularia da.

Atzetik aurrerakoa eginez, ikaragarritzko indarra erakutsiz, lortu zuen garaipena Azurmendik. Bere esprinta birala egin da sare sozialetan, Instagramen batez ere, eta txirrindularitza munduko influencerrek komentatu dute eta guzti.

Parke Teknologikoak 1.000 ikasle inguru hartuko ditu

Ate irekien jardunaldiaren helburua da ikasleei “Lanbide Heziketak Parke Teknologikoko enpresetan dituen aukerak erakustea”. FPParke HETEL eta Ikaslan Lanbide Heziketako elkar-teen eta Euskadiko Parke Teknologikoak antolatutako ekimena da.

Bizkai, Araba eta Gipuzkoako 21 ikastetxetako batxilergoko lehenengo mailako 1.000 ikasle baino gehiagok Zamudioko Parke Teknologikoa hartuko dute gaur. Jardunaldiaren helburua da Lanbide Heziketako ibilbideek eskaintzen dituzten “indarguneak eta lan-aukera”k ezagutaraztea. Enpresek, ordea, beren jardueraren eta LH ZTIM profil jakin batzuen beharra erakutsiko dute. Euskadiko Parke Teknologikoan lan egiten duten 23.600 pertsonetatik 6.000 baino gehiago Lanbide Heziketatik datozela nabarmendu dute.

 **POLITEKNIKA
TXORIERRI**

HEGAN
EGITEKO AUKERAK

Lanbide Heziketa eta Batxilergoa

Zure superbotea garatu

 **Eman izena**
POLITEKNIKATXORIERRI.EUS

 **Euzko Jaurlaritzaren Sektoreko Departamentua**
 **IKASTOLAK**  **HETEL**



Asua ibaiaren egoera hobetzeko eta uholde arriskua murrizteko lanak osatuko dituzte

URA-Uraren Euskal Agentziak eta Lezamako Udalak Asua ibaia hirigunetik igarotzean hidraulika eta ingurumena egokitzeko proiektu integral bat gauzatzea erabaki dute. Obra batzuk egingo dituzte ibaiaren egoera hobetzeko eta herriaren erdigunean uholde arriskua murrizteko. Obrek 2.000.000 euroko aurrekontua dute eta lanok 12 hilabeteko epean gauzatzea aurreikusten dute.

Obren tartea 250 metro inguruko luzera dauka; gaur egun, eremu antropizatuak edo estaliak daude, eta horien ahalmen hidraulikoa nahikoa ez dela diote. Horrela, lehendik dagoen lurpeko kanalizazioa kenduko dute, eta aire zabaleko ibilgu berri bat egingo dute, "ibai ekosistema-ren funtzionamendua eta ibaiak herriaren duen paisaia-integrazioa hobetuz".

Proiektuak hurrengoko lanak ekarriko ditu: Ubidearen estaldura kentzea, Asua ibaiaren ardatzaren trazadura berria 59. eta 67. atarietarako sarbideen artean (Garaioltza auzoaren parean), tartearen ingurumen egokitzapena, ingurua berrurbanizatzea oinezkoentzat eta ibilgailuentzat, uraren eta ingurumenaren hobekuntza ibaian gora Garaioltza auzoraino eta ukitutako zerbitzuak berrezartzea.

Jarduera horri esker, "Lezamako herriarrek ibaiaren zati naturalizatuago bat berreskuratu ahal izango dute, ura husteko gaitasun handiagoarekin eta udalerriko hiri-bilbea hobeto integratuta", adierazi du Agentziako zuzendari nagusi Asier López Etchebarriak. Bestalde, Jon Ander Aurrekoetxeak alkateak erakundearen arteko lankidetzaren garrantzia azpimarratu du, eta eskerrak eman dizkie Eusko Jaurlaritzari eta URari proiektuan parte hartzeagatik. "Denbora daramagu elkarrekin lanean obra hauek aurrera ateratzeko, eta laster hasiko gara horien fruituak ikusten".

BERRI LABURRAK



Eskolako jantokiak Hezkuntza Batzordeko parlamentari eta Eusko Jaurlaritzako ordezkarien bisita jaso du

Martxoaren 13an, Hezkuntza Saileko Iñaki Orbe eta Garbiñe Saenz de Buruaga arduradunek eta EAJ, EH Bildu eta PSE-ko ordezkariak Larrabetzuko eskolako jantokiaren proiektuaren berri izan zuten. Bisitan, Txinpasmendi guraso elkarte kideek zenbait eskaera aurkeztu zizkieten.

18 urte dira Larrabetzuko eskolako jantoki zerbitzua Eusko Jaurlaritzako sistematik kanpo dagoela. 2000. urtean, Eusko Jaurlaritzak eskola jantoki zerbitzua arautzeko dekretua argitaratu zuen, eta dekretuaren arabera, eskola jantoki guztien kudeaketa catering enpresen esku utzi behar zen. Larrabetzuko eskolak ez zuen dekretuarekin bat egin; eta, ondorioz, 2008az geroztik, kudeaketa guztia Txinpasmendi Guraso Elkartearen esku dago. 2024an berritu du Jaurlaritzak 2000. urteko araua, eta due-la 24 urte ezarritako eredia iraunarazten du. Horregatik, gogoratu dute gaur egun ez dutela lege babesik, sistematik kanpo daudelako. Horrenbestez, ez dute inolako babesik egoera askoren aurrean.

Testuinguru horretan, politikariak gaur egungo jantokiko proiektuaren berri izateko aukera izan zuten barikuan, martxoak 13. Txinpasmenditik hainbat eskaera egiteko baliatu zuten bisita. Batez ere, beste eskolako batzuetako umee-k dituzten eskubide berdinak eskatu zituzten. Langileen aldetik, abendutik jantokiko elkarbizitza zaintzeko beste langile

bat jardun herenean aritzea lortu zuten. Eta alde horretatik, "pozik" daudela airtortzen badute ere, berez, eskolako ume kopuruagatik, jardun erdira egon beharko litzatekela diote.

Horrez gain, arazo nagusietako bat da, sistematik kanpo egoterakoan, ez dutela Eusko Jaurlaritzarengandik diru laguntzarik jasotzen. Gaur egun, Larrabetzuko Udalaren diru laguntza eta aurten igo behar izan duten jantokiko gurasoen kuota dira diru iturri bakarrak. "Katering bidez lan egiten duten ikastetxeetan, gurean ez bezala, Eusko Jaurlaritzak menuaren %28 ordaintzen du. Egoera berraztertu eta sisteman integratzeko bideak aztertu beharko liratezke, edo aparteko finantziario bideak aurkitu".

Bekadunen kasuan, Hezkuntza Sailak jantokiko gastuei aurre egiteko beka jasotzen duten eskolako familiek ez dute kuota prezioaren %100 jasotzen. "Bekak jasotzeko oinarrian gestio zuzenean dauden ikastetxeetako menuaren prezioa hartzen da erreferentzia gisa. Eta, gurean, handiagoa da gastua. Egoera horrek desberdintasun egoera sortzen du gestio zuzenean dauden eta egoera zaurgarrian dauden gainontzeko familiekin".

Zuzenean ez zuten inolako erantzunik jaso arduradun politikoen aldetik, baina behin datuak eskuartearen izanik, erantzun eta konponbideren bat jasotzeko asmoa mantentzen dute. Hori bai, horretarako, ez diete inolako eperik eman.

Gakoa: eginez ikastea

Lanbide Heziketak ikaskuntza aktibo eta kolaboratiboa sustatzen du, non ikasleek lehen mailatik bertatik benetako egoerei aurre egiten dieten.

Ibilbide osoa: Oinarritzko LHTik Masterrerraino

Zentroaren abantaila handienetako bat **ibilbide formakuntza integrala** eskaintzea da. Oinarritzko LHTik hasi eta LHko Masterrerraino, ikasleek beren erritmoan egin dezakete aurrera, etorkizuna pausoz pauso eraikiz.

Prozesu horretan laguntzeko, zentroak **orientazio zerbitzu pertsonalizatua** du: profesional talde batek banakako aholkularitza eskaintzen du prestakuntza-ibilbideei, lan-irteerei eta garapen pertsonalari buruz.

Zubi zuzena enplegurantz

CIFP AndraMari LHII-k enpresa-ehunarekin duen harremana da bere balio nagusietako bat. **Prestakuntza dualaren sistemaren** bidez, ikasleek ikaskuntza txandakatzen dute ikastetxearen eta enpresen artean.

Gainera, zentroak **enplegu-poltsa aktiboa** du, tituludunen laneraketa errazteko.

Europa ikasgela gisa

Nazioarteko dimentsioa ere presente dago. Erasmus+ programari esker, ikasleek Europako hainbat herrialdetako enpresetan praktikak egin ditzakete.

Ikasgelatik bertatik ekintzaile

Bere buruaren nagusi izan nahi dutenentzat, zentroak UrratsBat programa dauka, ekintzailetza sustatzeko berariazko egitasmoa. Hasierako aholkularitzatik martxan jartzerainoko laguntzara arte, etorkizuneko enpresariak mentoretza zerbitzua, baliabideak eta laguntza teknikoa dituzte beren ideiak proiektu bideragarri bihurtzeko.

Ate irekiak
Apirilak 23,
osteguna
18:30h

-  Elektrizitateko eta elektronikako oinarritzko profesionala
-  Administrazio Kudeaketa
-  Telekomunikazio-instalazioak
-  Mantentze Lan Elektromekanikoa
-  Zibersegurtasuna Eragiketa-Teknologien inguruneetan

KLASETIK ENPLEGURA: ENPRESEKIN LOTZEN DUEN LH EZAGUTU

Zergatik aukeratu LH?

Lanbide Heziketa kalitatezko enpleguetarako bide eraginkorra da, enplegarritasun-tasak unibertsitateko gradu askorenak baino handiagoak baitira. LH etorkizunerako apustu sendoa da.

Ate irekien jardunaldian, bisitariak instalazioak ezagutu, irakasleekin hitz egin eta onarpen-prozesuari, eskaintzen diren heziketa-zikloei eta espezialitate bakoitzaren lan-irteerei buruzko zalanza guztiak argitu ahal izango dituzte.

Zure etorkizuna alda dezakeen erabakia apirilaren 23an duzu zain.

Informazio gehiagorako:
fpandramari.eus
944562720

-  Administrazio eta Finantzak
-  Zuzendaritzari Laguntza
-  Telekomunikazio eta Informatika Sistemak
-  Mekatronika Industrial



Fp AndraMari
LANBIDE HEZIKETA
Galdakao

94 456 27 20
fpandramari.eus
Barrio Elexalde, 45B
48960 Galdakao

GUIREAN IZAN DA

T MIKEL REINA BARROS GAIKZA PEÑAFIEL

EÑAUT ELORRIETA LARRUZEA
 Kantugile eta abeslaria

“Oso polita iruditzen zitzaidan elizetan jotzeko ideia inspiratuzidan tokira itzultzea”

Poza sentitu dugun tokira itzultzen garela esan ohi da, baita inspiratzen gaituen lekuetara ere. Hori egin du Elorrietak. Lezamako Andramari elizan jo zuen lehen aldiz eliza batean, 2017ko abenduaren 30ean. Sentipen horietatik abiatuta, hasi zuen iaz ‘Ateosteko’ bira, eta zelan ez, Lezaman eman nahi izan zion birari amaiera, martxoaren 21ean.

Hasteko, zelan joan da ‘Ateosteko’ bira?

Oso pozik nago, nire aurreikuspen guztiak apurtu eta gainditu dituen bira bat izan da. Disko bat atera eta taldearekin egiten dudana biraren ostean, gustuko dut bidea ematea normalean egiten ez ditudan kontuei. Adibidez, Alos Quartet taldearekin ere ibili izan naiz. Ahots kordak izeneko proiektua lantzen eta kontzertuak ematen. ‘Ateosteko’ bira hau bakarrik egin izan dut, baselizetan edota ermitetan. Uste nuen bira puntual eta txiki bat izango zela, baina azkenean dimentsio eta gorputz handia hartu duen bira izan da. Asko gozatu dut, paraje zo-

ragarrietara eraman izan nau. Azkenean, ezustean, bira handi batean bilakatu da.

Zu pozik, eta jendeak zer esan dizu, zelangoa izan da harrera?

Hemen ere harrituta nago, eliza guztiak bete egin dira eta entzuleek oso pozik amaitu dutela esan didate. Azken kontzertuetan jendea zutunik amaitu du, ez da ohikoa izaten. Gitarra eta biok gaude bakarrik, eta hauskortasun horretan, uste dut jendearengan urrunago eta barrurago sartzen direla abes- tiak. Giro gertukoago bat sortzen da. Magia berezia sortzen da horrelako espazioetan. Jendea hunkituta amaitu du kontzertua, eta niri ere heltzen zait hunkitasun hori.

Zergatik erabaki duzu ermita, baseliza edota elizetan kontzertuak ematea?

Orain dela urte batzuk Lezaman jo nuen lehen aldiz eliza baten, eta hasiera batean arraroa egin zitzaidan euskara elkar- tearen proposamena. Kontzertu horren ostean, oso gustura geratu nintzen, espazioak kantak beste modura batera jo- tzerara eta abestera gonbidatzen ninduen. Inprobisaziorako tarte bat aurkitu nuen, ahotsarekin gauza desberdinak egitera. Eta horrelako espazioak ustiari behar ni- tuela konturatu nintzen. Ideia horretatik tiraka, elizak zentro diren bira bat anto- latzeko ideia etorri zitzaidan burura. Ipa- rraldean, esate baterako, ohitura handia



Elorrietak Lezamako Andamari elizan eman dio birari amaiera.



dago horrelako espazioetan kontzertuak ematea. Lezamako lehen kontzertuaren ostean izandako ideia bat izan da.

Zer aurkitzen duzu horrelako espazioetan? Agian beste batzuetan ez dagoena.

Materialak, egurra edota harria, *rever* naturala sortzen dute, ahotsari eta gitarrari bakarrik asko laguntzen diotena. Beharbada baxuaren edo bateriaren tonuak galdu egingo ziren, baina ahotsarena eta gitarrarena babestu eta indartu egiten dira. Gainera, gertuko giro bat sortzen dela nabarmenduko nuke, jendea oso parte hartzaile sentitu izan dut. Agian tokiak duen espiritualismo horrengatik, nahiz eta kontzertuak ez diren horrelakoak. Proposamenak ez dauka erlaziorik erlijioarekin. Nire ibilbideko kantuak abestu ditut, ohiko kontzertuetako formatua mantendu dut. Nire kantaerak eta kantuek izan dezakete zati espiritual bat horrelako lekuetan indartu egiten dena. Ez dakit zer den zehazki, zaila egiten zait azaltzea, baina sentitu dudana zerbait izan da. Horrez gain, oso sentsazio kontraesankorra dirudien arren, elizetan ni bakarrik gitarrarekin abesten nagoenean sentitzen dut edozein momentutan erori ahal naizela. Hari baten gainean oreka mantentzen nagoela sentitzen dut. Oso hauskor sentitu naiz, baina aldi berean,

“Urte amaierarako, oraindik ez dakit zehazki noiz, baina kanta berriekin itzultzea espero dut”

espazioak eusten nauela sentitu dut, olatuaren gainean egongo banintz bezala. Indar eta energia ez-ohikoa izan dut, oso interesgarria izan da sentipen horiek izatea oholatza gainean.

Gainera, orain elizarekiko atxikimendua gero eta baxuagoa denean, hor ere kontraesana dago: zuk, erlijioak aspaldian ez bezala, elizak bete dituzu.

Ateosteko bira hau elizetan egiteko erabakia hartu nuenean, lehen aipatutako arrazoi guztiez gain, ere bazegoen horrelako espazioak herritartatzeko helburu bat. Horrelako kontzertuetarako toki ezin aproposagoak dira. Herriak erabili behar dituen espazioak direla uste dut, herriaren mesedetan jarri behar direla. Herriak berreskuratu behar dituen espazioak dira, bere kultura tokiaz gain, edozein herritarrek erabili ahal izateko. Edozein

espresio kultural edo artistiko islatzeko tokia izan beharko litzateke.

Beraz, ez da kasualitatea izan Lezamako aukeratu izana bira amaitzeko.

Bai, hori da. Bira guztiak bezala amaiera bat eman behar zitzaion, eta oso polita iruditzen zitzaidan elizetan jotzeko ideia inspiratu zidan tokira itzultzea. Ilusio berezia egiten zidan zirkulua osatzea. Hurrengo hilabete luzeetan sorkuntza lanean murgildu nahi dut bete-betean, orain arte ibili naiz, baina eskusiboki jarriko naiz buru-belarri. Abestiak sortzera bideratu nahi dut nire denbora guztia. Urte amaierarako, oraindik ez dakit zehazki noiz, baina kanta berriekin itzultzea espero dut.

Aldaketa nabaritu duzu Lezamako lehen kontzertu horretatik aurtengora?

Bai, zelan ez. Eliza baten jo nuen lehen aldia zen, eta ez nekien espazio horrek zelan eragingo zuen nire proposamenen. Orain, banekien nora nindoan eta zelan eragingo zuen nire musikan. Horrengatik, abestien aukeraketan eta gitarra jotzerakoan egindako aldaketak bide horretatik joan dira. Guztia joan da espazioaren eta musikaren alde. Horrelakoe-tan, esperientziak asko balio du. ●

IZ
ILE APAINDEGIA
946036943
Txantxangorri 62
ZAMUDIO
iz.ile.apaindegia@gmail.com

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO
EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI
libreria.papeleria_zamudio@hotmail.com
Gorbea kalea, 4 - ZAMUDIO - 944 522 910

BASALBEITIKO TXAKOLINA
Bikakiko Txakolina
Denominazio de Origen

Geltzoltza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46



T MIKEL REINA BARROS

BESTE BIRA

VIRGINIA BERASATEGI, CINTHYA MOREIRA, GARTZE MENTXAKA, PATRICIA EUBA ETA OLIVIA GOTE Beste Bira Loiu

Beste bira bat eman diote

‘Running’ edo korrika egitera ateratzea modan dago. Eguraldi onarekin batez ere, txirrindulariek errepideak hartzen dituzten bezala, hartzen dituzte korrikalariek herrietako kaleak. Txorierriko atletismo taldea Loiuako Beste Bira kluba da. Beste bira bat eman diote bere proiektuari eta lehen aldiz emakumeen taldea sortu dute.

“Korrika egiteko ez duzu ezer behar, zapatilak bakarrik, beraz, edozeinentzako kirola da”. Virginia Berasategik, Cinthya Moreirak, Gartze Mentxakak, Patricia Eubak eta Olivia Gotek osatzen dute taldea. Urtarrilaren 13an, Ortuellako Euskadiko Krosa Txapelketan parte hartu zuten talde moduan lehen aldiz. Laugarren postua eskuratu zuten. Urtarrilaren 25ean, Muskizeko Master Txapelketan bigarren postua lortu zuten.

Master kategorian lehiatzen dute, hau da, guztiek 35 urte baino gehiago dituzte. Nagusiena Berasategi da. Adina bestelakoa bada ere, oraindik, zelan ez, erreferentzialtasun hori mantentzen du. Bere kirol ibilbidean dominak ditu Europako zein Munduko Txapelketetan triatloi eta

“Garrantzitsua da neska gehiago aurkitzea, horrela parte hartze zabalagoa eskuratu dezakegu”

ironman modalitateetan. Zergatik sartzen da orain horrelakoetan? “Motibazio berri bat da, ez nuen zalantzarik izan baiezkoa ematerakoan”. 13 urte zeramatzan krosean aritu barik, txikitatik atletismoan eta krosean aritu bada ere, hemen ere Bizkaiko eta Euskadiko txapeldun izan da, maila guztietan. Berasategi urte

askotan bizi izan da Sondikan, eta harreman zuzena zeukan Beste Birako kide batzuekin, gizonetakoak kasu honetan. “Beti gustatu zait korrika egitea, lehiatzen nuenean ere kalitatezko entrenamenduak eskaintzen zizkidan”.

Mentxakak Zamudioko Parke Teknologikoan egiten du lan eta bertako pistetan elkartzeko den taldearekin hasi zen entrenatzen. Talde baten parte izatearen garrantzia azpimarratu du eta klub bat ordezkatzekoan, lasterketek “bestelako dimentsio bat” hartzen dutela dio. Goten fitxaketa ahoz ahokoa izan zen. “Sondika, eta oro har Txorierri, nahiko txikia da eta elkar ezagutzen gara asko, beraz, ez zen zaila izan kobentzitzea”. Korrika egitera “osasunagatik” ateratzetik txapelketetan parte hartzera aliegatu da. “Ez



zidaten inolako presiorik jarri Beste Biratik, helburu nagusia emakumeen taldea ateratzea zen". Gainera, Goten kasuan, bere lehendabiziko krosa zen, ez zuen ordura arte inoiz probatu. "Gustatu zitzaidan eta motibazio iturri berri bat izan da niretzako. Ez du zerikusirik edozein egunetan korrika egitera ateratzearekin, fisikoki gogorra da".

Moreira izan zen Beste Bira klube-ko lehen emakumea, bi urte daramatza taldean, baina onartu du lehen aldiz emakumeen taldea ordezkatzek "ilusio berezia" sortu ziola. "Garrantzitsua da gero eta neska gehiago aurkitzea, horrela parte hartze zabalagoa eskuratu dezake-

gu, gero eta gehiago izan, hobeto".

Ortuellako krosean elkar ezagutu ziren lehen aldiz, "ordura arte ez ginen eza-gutzen". Hasieratik bizi izan duten "giro bikaina" azpimarratu dute eta emaitzak ere alde izan dituzte. Oraindik ez dute ezta aurreikuspenik ere egin. Aurten, ur-tarrilean hasi ziren, hau da, kros denbo-raldian amaitzen dagoela, beraz, urrian hasiko den hurrengo sasoa oraindik urrun ikusten dute. Hala ere, bestelako lasterketetan ere parte hartzen dute eta bertan elkartzen dira.

Zelan ez, guztiek Berasategiren figura nabarmendu dute. "Plazera" edota "ohorea" izan dira taldekideek esan dituzten

hitzetako batzuk. Profesional ohiak ere esker oneko hitzak bakarrik izan ditu, "ilusioa" piztu zaio berriro bare barnean Beste Birako nesken talde berriarekin. "Nire helburua taldea egitea eta ondo pasatzea da".

Denek ala denek zerbaiten parte nahi izatea azpimarratu dute. Azkenean, korrikalariak nahiko bakartiak dira, eta taldeka lehiatzerakoan aldatu egiten da pertzepzioa. Atzean geratu dira markak lortzeko helburuak, gainditu nahi duten marka bakarra gero eta emakume gehi-go taldera batzea da. Horrez gain, zaila bada ere, "bakoitzak bere egoera dauka eta zaila bat bat egitea", noizbehinka ba-tera entrenatu nahi dute. ●



IN | SUKALDEAK
insukaldeak.com

BILBAO
T. 94 402 82 54

Lehendakari Aguirre 175-177.
48015 Bilbao

DERIO
T. 94 656 85 69

Txorierriko etorbidea 9. Ed. Arteaga.
48160 Derio



**NAHI
DUZUN
SUKALDEA**

25 urteko esperientziak bermatzen gaitu.
Doako finantzaketa.

Elkarrekin egotea: hitzetatik ekintzetara



Aste Santua hurbiltzen ari da, eta harekin batera eguneroko erritmotik ateratzeko aukera. Atsedena, denbora... eta, teorian, elkarrekin egoteko tarte. Baina badakigu nola izaten den askotan: mahai berean egon arren, bakoitza bere pantailarekin, isilean, elkarrengandik urrun.

Ez da kasualitatea, ezta salbuespena ere. Hori bihurtu da ohikoa.

Horregatik, agian ez da nahikoa “denbora gehiago pasatu behar dugu elkarrekin” esatea. Agian, zehaztu egin behar da.

BENETAKO KONTAKTUA EZ DA GERTATZEN BAKARRIK

Elkarrekin egotea ez da espazio bera partekatzea soilik. Arreta eskatzen du, presentzia. Eta hori ez da automatikoki sortzen; erabaki egiten da.

Aste Santua aukera bat izan daiteke, baina baldintza batekin: intentzioa praktikara eramaten bada.

KONPROMISO TXIKIAK, BAINA ARGIAK

Kontua ez da proposamen zerrenda bat

osatzea, baizik eta bete beharreko akordio batzuk adostea:

- Bazkalorduetan eta afarietan, telefonoak kanpoan uztea. Ez salbuespen gisa, baizik eta arau gisa.
- Egutero tarte jakin bat pantailarik gabe egitea, aldezturik adostua eta errespetatua.
- Jarduera bat gutxienez elkarrekin egitea (paseoa, jolas bat, janariaren bat prestatzea...), baina benetan elkarrekin, distrakzioarik gabe.
- Elkarriketa bat edukitzea, presarik gabekoa, tartean inongo pantailarik izan gabe.

Ez da dena egitea. Baina egiten dena, benetan egitea.

HELDUEK ERE BETE BEHAR DUTE

Sarritan arauak umeentzat dira. Baina kasu honetan ez du funtzionatzen horrela. Helduok ez badugu betetzen, ez dago akordiorik.

Beraz, honek ez du balio gomendio gisa. Familia bakoitzak erabakitzen badu, konpromiso bat da. Eta konpromisoak, bete egiten dira edo ez dira.

Aste Santua ez da aldaketa handiak egiteko garaia. Baina bai ohitura txiki batzuk serio hartzeko unea. Eta agian hortik hasiko da benetako aldaketa.



Gazteen sormena, berdintasunaren alde

Txorierriko Mankomunitateak, IMQ Prebentzioarekin elkarlanean, martxoaren 8ko kartel lehiaketaren II. edizioa antolatu du, emakumeen gizarte-parte hartzea eta garapen osoa sustatzen dituzten mezua zabaltzeko helburuarekin. Ekimen hau 16 eta 18 urte bitarteko Politeknika Txorierriko, Txorierri BHIko eta Colegio Vizcayako ikasleei zuzenduta dago, berdintasunaren inguruko hausnarketa eta sormena uztartuz.

Aurtengo edizioan, Politeknika Txorierriko eta Colegio Vizcayako 130 ikaslek

hartu dute parte, emakumeen eskubideen aldeko kartelak sortuz. Antolatzaileek nabarmendu dute gazteen inplikazioa “adierazgarria eta inspiratzailea” izan dela, eta bereziki eskertu dute irakasleen konpromisoa, lehiaketaren arrakastarako funtsezkoa izan baita.

Lehiaketa honen bidez, gainera, berdintasunaren inguruko sentsibilizazioa indartu da hezkuntza-komunitatean. Txorierriko Mankomunitateak martxoaren 8aren bueltan antolatzen dituen jardueren artean kokatu da, gazteen ahotza eta ikuspegia protagonista bihurtuz.



“Merkalagun”: euskara saskira

Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak proiektu pilotu bat jarri du martxan: Berbalagun taldeak, tokiko establezimenduetara eraman ditu, euren mintzapraktika saioak egoera errealetan egiteko eta aldi berean tokiko merkataritza sustatzeko.

Euskaraz egitea fruta-dendan, ile-apaindegian edo tabernan gero eta ohikoagoa izatea da Euskara Zerbitzuaren helburuetako bat. Horretarako jarri da martxan MERKALAGUN izeneko proiektua, Berbalagun programako kideak eta “Euskararen Lagunak” sareko establezimenduak elkartzen dituen ekimena.

Proiektuaren bidez, Berbalagun taldeek euren mintzapraktika saioetako batzuk herriko dendetan eta tabernetan egiten dituzte. Horrela, euskaraz aritzeko aukera, ohiko ikasketa edo elkarrizketa testuingurutik harago eramaten da, eguneroko egoera errealetara hain zuzen:



erosketak egitera, produktuei buruz galdetzera edo dendariekin berba egitera.

Ekimenak bi aldeentzat ekarpenak ditu. Alde batetik, tokiko merkatariek bezero berriak lortzeko eta euren produktuak ezagutzera emateko aukera dute. Bestetik, Berbalaguneko parte-hartzaileek euskaraz aritzeko egoera naturalak bizi dituzte, hizkuntza erabiltzeko konfiantza eta ohitura indartuz. MERKALAGUN proiektuaren bidez honako helburu hauek lortu nahi dira:

- Euskararen erabilera praktikoa handitzea eguneroko erosketetan eta zerbitzuetan.

- Tokiko merkataritza euskaldunaren balioa nabarmentzea eta herritarren artean ezagutaraztea.
- Berbalagun taldeei esperientzia berriak eskaintzea, motibazioa eta erabilera errealak uztartuz.

Orain arte hiru esperientzia pilotu egin dira: Derioko Liliak Loradendan, Sondikako Esther fruta-dendan eta Larrabetzuko Koloretako fruta-dendan, eta jasotako balorazioa oso positiboa izan da.

Horrenbestez, egitasmoarekin jarraitzea eta Txorierriko beste herrietara zabaltzea erabaki dute antolatzaileek. Hurrengo hilabeteetan Berbalaguneko talde gehiagok bisitatuko dituzte “Euskararen Lagunak” sareko beste establezimendu batzuk, dendak ezagutu eta bertako giroan euskaraz aritzeko.

Azken finean, proiektuaren helburua argia da: euskara eguneroko bizitzako espazioetara eramatea, kalera ez ezik herriko denda eta tabernetara ere bai.

TXORIERRIKO BERBAK

Hileen izenak gurean

Eguaztena entzun eta atoan jakingo dau Txorierriko edonork asteko hirugarren egunaz gabilzala. Zezeil eta garagarri berbak entzun ezker, barriz, harridura aurpegia lotuko jako bati baino gehiagori. Izan be, txorierriar askok asteko egunak bizkaieraz erabilten dauzen arren, hileen izenak erdi ahaztuta gelditu dira. Gehienok euskera batuak ekarritako izenak darabilguz, baina bada, bertako izen zaharrak ahaztuta, erderazkoak erabilten dauanik (eneroa, junioa...). Hor kokatu beharko geunke Zamudioko esaerea: *enero, febrero, marzo ta abril, txakurren eta katuen eperdie arin dabil*.

Lehenengo hileak ez deusku arazorik sortzen: *urtarrila*. Bertako berbea be bada, baita Iparralde osokoa be. Sasoi hotza eta iluna danez, gipuzkoarrek *ilbeltza* esaten deusie, eta nafar batzuek *izotzila*.

Bigarrenari *zezeila* esaten jako Txorierriin (*zezeil*, Larrabetzun; *zezail*, Sondikan). Sondikan bigarren izen bat be badauka otsailak: *iltxiker*. Jakina, egun

gitxi daukaz eta! Katuak altan egoten diran sasoi danez, *kataila* (*katuila*) be esaten jako hile horri bizkaieraz egiten dan herri batzuetan.

Ostean *martia* dator. Mendebalde osoan entzun geinke izen hori. *Apirila* be bardin izentatzen da (herri batzuetan ahoz *april*). Laugarren hile horri *jorrala* be esaten deusie bizkaitar batzuek.

Maiatza bardin. Ahoz Txorierriin *maietza*. Inguruko herri batzuetan, adinekoek-eta, *loraila* be esaten deusie, Gamiz-Fikan esaterako.

Ekainari *bagila* esaten jako bizkaieraz (Txorierriin be bai). Beste izen asko be badaukaz Euskal Herrian: *garagarri* (G, N), *garagartzar* (N), *erear* (L, N), *arramaiatza* (Z)...

Zazpigarrenari *garagarri* esaten jako; garagarra batzeko sasoi, itxura danez. Euskal Herri luze-zabalean daukazen gainontzeko izenek be uztagaz daukie loturea: *uzta* (G, N), *uztaila* (Iparralde), *garila* (N).

Hurrengo hiru hileak bardin: *abuztua*; ahoz, *agustue*, *abustue* be entzungo

doguz Txorierriin. Mendebaldean galdu samar dagoan arren, sasoi baten *dagonila* be esaten jakon hile honi. *Iraila* (ahoz Txorierri, *iralle*, *irille*) izenaren oinarrian “ira (ida)” berbea dago, ‘garoa’ izentatzeko darabilguna. Beste izen batzuk be badaukaz: *agorra* (G), *buruila* (L, Z), *urria* (N). *Urriari* Getxo-Leioa aldean *urrieta* esaten jako, baita beste muturrean be, Zuberoan.

Azken-aurreko hileak izen bakarra dauka mendebalde osoan: *zemendia*. Batuak ekarri deuskun azaro berbak, barriz, eremu zabalagoa hartzen dau (G, N, BN, Z).

Urteko azken hileari bardin esaten deusagu euskaldun guztiok: *abendua*. Bizkaian eta Gipuzkoan bada bigarren izen bat (*gabonila*), baina oso erabilera txikia dauka.

Errepasoa amaituta, erraz konturatuko zinan izen asko bardinak dirala gurean eta osterantzeko euskalkietan. Ez bazen kizan, ikasi eizuz, bada, bertako izen zaharrak. Eta, aurrerantzean, zeuk erabagi noiz erabili...

“Hitzez azaldu ezin dudan esker ona daukat”

PEDRO MARI GOIKOETXEA LINAZA
Kazetaria



T MIKEL REINA BARROS ANER MENTXAKA ALVAREZ · PEDRO MARI GOIKOETXEA

40 urte baino gehiagoko ibilbidearen ostean, jubilatuta berri da lezamarra. Martxoaren 15ean jubilatuta zen ofizialki, zelan ez, boxeolari lotutakoa izan da bere azken jarduna: Kasilla kiroldegian jokotutako Europako Txapelketa izan zen bere azken egitekoa.

Dagoeneko egin zara jubilatua- ren bizitza famatura?

Derrigorrez hartu beharreko oporrak izan ditut aurretik, gaixorik egon naizelako. Beraz, trantsizioa egin ahal izan dut. Gainera, ETBko kirol sailean belaunaldi aldaketa bizi dugu eta sarritan pentsatu dut: “Zer egiten dut nik nire seme-alaben adinekoekin!”. Edozein modutan, orainarte ez dut jubilazioaz pentsatzeko asti gehiegirik izan, alde batetik, azken egunera arte izan dudalako zereginen bat esku artean eta, bestalde, bazkari, omenaldi eta agurrekin entrenenituta ibili naizelako. Etor-kizunari begira ez daukat plan zehatzik. Gehien gustatzen zaidana egingo dut: eskatzen duenari lagundu. Beste zerbait ere bururatuko zait seguru, batez ere euskarari lotuta. Jubilatzea ez da zeharo erretiratzea.

Nondik datorkizu kazetaritzarekiko sen hori?

11 urtera arte Goitioltza auzoko eskolan ikasi nuen, denek elkarrekin ikasten genuen, garai horietan mutilak bakarrik, noski. Gero, nire gurasoak erabaki zuten Seminaria ikasten bidaltzea. Eskertuta nago bide hori hartu izanagatik, bertan ikasi dudalako dakidan gehiena. 7 urte egon nintzen eta azken urtera arte ez nuen erabaki zer egin, zalantza asko izan nituen. Kazetaritza, gainera, urte horretan hasi zen gurean. Nire kurtsoko bizpahiru sartu ginen kazetaritzan.

Bilboko Herri Irratian eman zenituen zure lehen pausoak.

Kazetaritza ikasten hasi eta gutxira Herri Irratian ofizioa ikasten hasteko aukera eman zidaten eta 20 urterekin kontratu fijo egin ere bai. Txorierriko albisteak ema-

ten hasi nintzen domeka goizetan. Gero, ordezkapenak ere egiten nituen. Adibidez, Adolfo Arejitak ‘Bertsolarien Txokoa’ izeneko saioa egiten zuen, baina soldadutzara joan zen eta nik hartu nuen bere tokiak. Gero, FMn euskarazko programazioa egiten hasi ginen Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin eta bertako arduraduna izan nintzen bizpahiru urtez. Denetarik egin izan nuen. Deustuko Hizkuntza Eskolan ere euskarazko klaseak ematen nituen.

1983an ailegatu zinen EITBra.

Apirileko azken egunetan, zehazki. Hasieran, irratiko oposizioetara aurkeztu nintzen, ez nuen telebistaz ezer jakin nahi. Irratia ezagutzen nuen eta horregatik egin nahi nuen lan bertan, baina telebistan lan egiteko konbentzitu ninduen. Euskal Telebista Hanburgoko (Alemania) Hanburgo Estudios enpresak montatu zuen.



Goikoetxea, Euskal Telebistaren hastapenetan eta boxeo borrokaldi bateko emankizunean.

Iurretan hasi ginenean, Alemaniako ingeniariak zeuden dena begiratzen. Kazetari, tekniko edota produktore asko joan ziren Hanburgora telebistaren nondik norakoak ikastera. EITBko nire txartel zenbakian 153 jartzen du, beraz, lehenengotarikoa ere ez nintzen izan. Hasieran, gauza gutxi zeuden: 'Gaur Egun' albistegia, marrazki bizidunak eta ezer gutxi gehiago. Albistegia aurkeztea ere tokatu zitzaidan. Haze estualdiak pasatu nituen! Gorbatarri korapiloa egiten ere ez nekien. Dena den, gehien bat, berri-emaile lana egiten nuen orduan. Gogoan daukat eman nuen lehen albisteetako bat. Galdakaoko 'Explosivos Rio Tinto' enpresan leherketa bat izan zen eta bertara joan behar izan nuen. Kirol emanaldiei dagokienez, maiatzaren hasieran Gernika-Lumoko Santa Luzia futbol zelai zaharrean jokatu zen Euskadi-Gales errugbi partida izan zen. Betidanik kirolzalea izan naiz, baina justu errugbiari buruz ezer gutxi ezagutzen nuen. Gorriak eta bi ikusi nituen. Askotan diot tentazioa izan dudala artxiboan dagoen grabazioa ezabatzeko. Lotsagarria.

Hastapenetan, dena egiteko zeneukaten, ezta?

Bai, hori da. Hasi eta urtebetera kirole-tako erredakzioa sortu zuten eta azterketa egiteko aurkeztu nintzen. Kirole-tako arduradun izan nintzen hiruzpalau urtez. Erredakzioa osatu eta antolatu beharra zegoen, kirol eskubideak lortu eta gainera, kirol saioak egin. Errazago da esatea zer egin ez dudana, zein kirol eman dudana baino. Curlinga edo, akaso. (Barrea...) Kirola gogoko izatea gauza bat da, baina ezagutzea beste kontu bat da. Hainbat urte geroago, berriro kirole-tako zuzendari izan nintzen 2000tik 2007ra. Jarraian, kirol emanaldien arduradun, lehen neukanaren zati bat besterik ez zen.

Hau da, EITBren bilakaera guztia bizi izan duzu.

Aldaketa ikaragarria izan da, gizartean eman den modukoa. Anekdotak bat, ulertu ahal izateko. 1984an, aro berriko Athleticen bigarren ligan, 'Kirolez Kirol' saioa gaueko 22:00etan egiten genuen. Saio erreferentea zen. Guk ezagutu dugun gi-

zartean bi kate bakarrik zeuden. ETB1 izan zen hirugarrena gurean, beste inon ez zegoen horrelakorik. Futbola ikusteko aukera bakarra futbol zelaira joatea zen, gainera, garai hartan partida guztiak domeketan 17:00etan jokatzen ziren. Ligako azken-aurreko partida Athleticen Valentzia jokatu behar zuen, eta hori irabaziz gero, azkena San Mamesen Realaren aurka. Irabaziz gero, Athletic txapeldun. Hau da, Valentziako partidua hain zen garrantzitsua erabaki genuela laburpena gaueko saiorako izan behar genuela nahi ta nahi ez. Horretarako, ez zegoen beste biderik zinta aerotaxi baten ekartzea baino. Saioaren babesleak, Petronorrek, ordaindu zuen bidaia. Gaur egun, mobilarekin dena daukazu eskura, berriemaile izan zaitezke munduko edozein tokitan. Pentsa, teknologiak zer nolako eragina izan duen. Denak bezala gauza onak eta txarrak ditu. Konpetentzia ere askoz txikiagoa zen, balioa, ordean, bestelakoa zen, ordura arte inork ikusi gabeko irudiak sartuko zenituela. Beste mila aldaketa eman dira, teknologiak ekarritakoak gehienak.

TXORIERRI
Inmobiliaria
Justo Ajuria, 2 SONDIKA
944 711 282
info@inmobiliariatxorierri.com

sarraila-denda
Txorierri
ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURITASUNEAN
Alain Pomposo Zarate info@cerajeriatorierri.com
605 100 800 www.cerajeriatorierri.com

OK
OAKLAND
ENGLISH
L. LEIZAOLA PLAZA, 2 - ZAMUDIO
946 522 857



2023an Frantziako Tourreko lehen etapetako batean EITBko lankideekin. Otsailaren 28ko omenaldia, Iñaki Perurenarekin Baserri Antzokian.



Jendearen portaera, pentsaera edota kontsumitzeko era ere aldatu da, dena.

Belaunaldi aldaketa ematen ari da EITBn: zu zeu, Felix Linares, Jose Ituarte, Roberto Moso, Jorge Cerrato...

Belaunaldi aldaketak seguru aldaketak ekarriko dituela. Orain arte zubi lana egin dugu lankide berriekiko. Teknologia eta gizarteak ere baldintzatutako aldaketak dira. Nire kasuan, eta kasu honetan ez nabil EITBren inguruan hitz egiten, oro har gizarteaz baizik, bai nagoela kezkatuta euskararen ikuspegitik begiratuta. Belaunaldi berriek euskara aldetik eragozpen handiak dituzte. Batetik, ez dutelako erabiltzen, eta bestetik, hizkuntzaren aberastasuna galdu dutelako. Erronka handia daukagu hor. Sarritan kontrakoa pentsatu genezaken arren, adibide bat jarriko dizut: Kopako Real-Athletic partidua %11,5eko ikusle kuota izan zuen ETB1en, eta %38,2koa La1n. Hori da gizartearen ispilua. Horrekin dena esanda dago nire euskararen kezkekiko eta gizartearen portaerarekiko, ez dago besterik. Datuak hor daude.

Zelan ikusten duzu EITBren egoera? Baita euskararen aldeko apustu horretatik hasita ere.

Erreza da esatea ETB2n gehiago gastatzen dela ETB1en baino, baina nik neuk ez daukat daturik. Badakidana da bi kanaletan 24 orduko programazioa dagoe-

“Gehien gustatzen zaidana egingo dut: eskatzen duenari lagundu, euskararen arloan batez ere”

la. EITBko zuzendaritzak ez du erabakitzen jendeak zer ikusi behar duen. Hori bakoitzaren hautua da. Argi dagoena da, ETB1eko saioek audientzia hobeak izango balituzte, diru gehiago gastatuko luketela horretan. Audientzia bikainak dituzten saioak ez dira kentzen. Erdibide edo oroka aurkitu beharra dago, baina ez da erraza. Gurean egindako saioak dira guztiak. Bere momentuan ‘Goenkale’k, adibidez, itzelezko arrakasta izan zuen, horregatik egin ziren hainbeste kapitulu. Kirolak, orokorrean, ondo funtzionatzen du. Eskupilota da eredu. Duela 30-40 urteko edo gaur egungo partida batek ez dute zer ikusirik. Hasieran, pelota ez zen ikusten, frontoiak toki ilunak ziren eta hormak zikin egoten ziren pelotakaden eraginez. Sekulako ahalegina egin zen pilota ikusi ahal izateko, udalekin hitz egin kolorea aldatzeko, argi gehiago jartzeko eta abar... Orain, EITBri esker, munduan erakutsi ahal izateko moduko kirola bilakatu da. Miraria ematen du, baina lan handiaren

ondorioa da. Estropadekin ere antzeko zerbait gertatzen da, orain dronak, mikrofonoak eta kamera txikiak erabiltzen dira. Itsasoak eta arraunak duen erakargarritasunaz gain, teknologia aldetik baliabide guztiak jarri dira. Hainbeste urtetan ekinaren ekinez lortu da. Txirrindularitza beste adibide eder bat izan daiteke. ETB izan zen Espainiar Estatuan bere medioekin txirrindularitza ematen hasi zen lehen telebista. Aspalditik Itzulia guk emititzen dugu eta seinalea mundu guztira zabaldu.

Alde horretatik, ez dizu pena ematen 34 urteren ostean, eta zure jubilazioarekin batera, ‘Boxeo Izarrak’ saioari jarraipena ez ematea?

Uste dut amaitzeko momentua zela hainbat arrazoiengatik. Lehen esan duguna, jendearen kontsumitzeko modua aldatu egin da, boxeoren garairik oparoenean hasi ginen. Aurretik ere emankizun solteak eskaintzen genituen, lehendabizikoa 1984an Kasillan jokatu zen Espainiako Txapelketa bat izan zen, Andoni Amaña eta Jose Lozanoren artean. Bariku gauetako ‘Supermatch’ saioan proposatu nuen noizbehinka borrokaldi bat sartzea. 1991ko udan hasi zen ‘Boxeo Izarrak’, boxeolari historikoen inguruko programekin. Garai hartan, konpetentzia gutxiago zegoen eta zaletasun handia, batez ere nagusien artean. Gero, pixkanaka, futbolarekin gertatu zitzaigun bezala, gaur egun dena aurkitzen duzu Interneten eta

publikoak ere bestelako kontsumitzeko modu bat dauka. Futboleak, astero ematen genuen partidu bat, Txapeldunen Ligakoak ere bai zenbait urtetan, baina aspalditik ordainpeko kateen esku dago. Eta EITBk ez dauka aurrekonturik horri aurre egiteko. Boxeoan ere borrokaldiak lortzea gero eta zailagoa da, are gehiago gero gauerdian emititzeko badira. Zaleak bestelako bideak ditu, nahi duenean ikusi ahal izateko. Orain, asmoa da, nire azken emankizunean bezala, Euskal Herrian egiten diren boxeo saiorik interesgarrienak ematea eta euskal boxeolarien jarraipena egitea.

Bide guzti horrengatik, otsailaren 28an omenaldian jaso zenuen Baserri Antzokian. Halakorik espero zenuen? Erabat ezustekoa izatea gaitza da, nahiz eta lan isil on handia egon den. Urtarrilean lagun batek esan zidan otsailaren 28an bazkari bat egiteko asmoa zuela. Gero, konturatu nintzen egun berean Rayo-Athletic partida zegoela 14:00etan eta biok ikusi nahiko genuela. Barikura aurreratzeko esan nion, baina ezetz zapatu arratsaldean pasatuko zela nire bila. Or-

“Gaur egun, mobilarekin dena daukazu eskura, berriemaile izan zaitezke munduko edozein tokitan”

duan zerbaite gehiago zegoela antzeman nuen. Badaezpada bertso bat prestatu nuen habanera doinuak kantatzeko. Ezin nintzen esku hutsik joan.

Zelan bizi izan zenuen omenaldia?

Lotsa ikaragarriarekin. Ez zaizkit horrelakoak gustatzen inondik inora, ez dut gustuko protagonista izatea. Sartu, eta alde bitan jarrita 100 pertsona baino gehiago, txaloka eta guzti. Bideoak, opariak eta denetarik egon zen. Lotsaz gain, oso eskertuta nago. Batez ere ikusita zenbat eta nortzuk etorri ziren eta omenaldia ezin hobea izan zen. Hiruzpalau egun eman ditut guztiei eskerrak ematen,

mezuak idazten edota deiak egiten nire esker ona adierazteko. Lagunei esaten nien: orain nire sentsazioa da guztiekin zorretan nagoela, hainbeste jaso ostean. Esan didate gonbidatu zituzten guztiek baiezkota eman zutela, bestelako konpromisoengatik etorri ezin zirenak izan ezik. Hala ere, horien mezuak eta deiak ere jaso izan ditut.

Denbora pasata, eta orain jubilatuta, pentsatzeko denbora gehiago duzula, ondorio edo hausnarketarik egin duzu?

Egia esan, larregi ez. Aste beterren barruan, bi omenaldi edo despedida izan ditut. Bata, Baserri Antzokian egindakoa eta bestea, lankideena. Biak zoragarriak izan ziren, apartak. Hitzaz azaldu ezin dudana esker ona daukat eta aldi berean jende guztiarekin zorretan nagoenaren sentsazioa. Ezetz esaten didate, nik egindakoa ordaina dela. Baina nire sentsazioa, ez dudala hori merezi, eta zorretan dagoena ni naizela. Pribilegiatua izan naiz eta hori baino gauza hoberik ez dago. Nolanahi ere, ez diot buelta gehiago emango. Nire bertsoan esan nuen bezala, “eskatu barik hartzea, horixe da zoriona”. ●

Ekin eta ekin 38 urtez. Publikoa, irekia, guztiontzat.



**TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA**




	B1 Erabiltzaile independentea	B2 Erabiltzaile aurreratua	C1 Erabiltzaile gaitua	C2 Erabiltzaile aditua
Euskaltegiako ikasleen deialdia B1 B2 C1 C2	Idazmena: Maiatzaren 7tik 9ra Mintzamena: Ekainaren 23tik 27ra	Idazmena: Maiatzaren 7tik 9ra Mintzamena: Ekainaren 23tik 27ra	Idazmena: Maiatzaren 7tik 9ra Mintzamena: Uztailaren 1etik 4ra	Idazmena: Maiatzaren 7tik 9ra Mintzamena: Uztailaren 1etik 4ra
Deialdi irekia B1 B2 C1 C2	Idazmena: Maiatzaren 7tik 9ra Mintzamena: Ekainaren 23tik 27ra	Idazmena: Maiatzaren 7tik 9ra Mintzamena: Ekainaren 23tik 27ra	Idazmena: Maiatzaren 7tik 9ra Mintzamena: Uztailaren 1etik 4ra	Idazmena: Maiatzaren 7tik 9ra Mintzamena: Uztailaren 1etik 4ra

Matrikulatzeko epea: **apirilaren 9tik 14ra**

Informazio gehiago: www.habe.euskadi.eus





ANER MENTXAKA ALVAREZ

LARRABETZUKO MASKARADA

Herria dantzan jarriz

Martxoaren 14an Bizkargi dantza taldeak Maskarada egin zuen Larrabetzun. Euriak ez zuen goizeko barriadak gelditzea lortu, Goikoelexaldetik urira heldu ziren *beltzak* eta *gorriak*. Arratsaldeko ofizioek frontoia txiki utzi zuten. 50 lagunetik gora ibili dira hilabetez Maskarada prestatzen, denak *manexak*: dantzari, antzezle edota jostunak. Auzolanean, herria dantzan jarri dute.

Ale-ahaindegia
M^a Antonia Llodio
Txorieriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

ZAMUDIO
Loteria Nazionalea
Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
loterias.zamudio@gmail.com

Sondigarbi
GARBITEGIA
ITURRIGANE, 2
635584941
EGUNERO
8:00-22:00





ATZERA BEGIRA

Indalecio Ojanguren eibartarrak Zamudioko San Martin eliza ere erretratatu zuen. Gaur egun Nagusien Etxea den eraikina 1926. urtean altxatu zen, duela ehun urte, herriko eskola hartzeko.

1918-1919



INDALECIO OJANGUREN BILDUMA / GURE GIPUZKOA (CC BY-SA)

2026



ZOZKETAK


Aikorren komunitatearen parte izateak saria du. Hilero hainbat sarrera eta opari zozkatuko ditugu gure irakurleen artean. Argibide gehiago: aikor.eus/zozketak



Hontza Museorako sarrerak

Hilero Hontza Museorako sarrera bikoitza!

Zozketan izena emateko azken eguna: **apirilak 19**



JumpYarderako sarrerak

Hilero hilero JumpYarderako sarrera bikoitza!

Zozketan izena emateko azken eguna: **apirilak 19**

AURREKO HILABETEKO IRABAZLEAK:

Loraldiarako sarrerak:

Leyre Iturricastillo Arrizabalaga
Irati Laita Marcaida
Maria Carmen Alvarez Palencia
Katalin Zarate Arrieta
Ainhua Llona Furundarena
Miren Apraiz Artetxe
Gorka Zarate Gorostiola

Errigora saskia:

Alesander Atxutegi Jauregi

Errigora saski ekologikoa:

Ana Castro Martinez

La Sinsorga urtebeteko harpidetza:

Maitane Emaldi Txabarri

Eguneko menua Baserri Antzokian:

Zigor Mediavilla Perez

JumpYarderako sarrerak:

Irune Franco Martinez de Murgia

Hontza museorako sarrerak:

Estibaliz Rangil Lopez Linares



Eguneko menua bi pertsonarentzat BASERRI ANTZOKIAN

Hilero bi lagunentzako menua zozkatuko dugu zuzenean gure aikorlagunen artean. Ez da beharrezkoa izena ematea.



HARATEGIA

ALBERTO

Arbolantxa, 4
Tel.: 944 520 825
48170 ZAMUDIO



RADIO TAXI FEMADE

Zure taxi, Teorierikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A



TAXI FEMADE



NAGORE LOPATEGI ESCALLADA

Komunitatearen eraldaketarako teknikaria

EMAUS

Sabai ikusezinak: emakumeen bizitegi bazterketa

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, askotan ikusezin bihurtzen den diskriminazioari buruzko hausnarketa egitera gonbidatu nahi dugu: gizarte bazterketa, eta horren barruan, desberdintasun zorrotz eta mingarrienetako bat, bizitegi bazterketa. Etxe duin baterako sarbiderik ez izateaz hitz egiten dugunean, ez gara soilik sabairik ez izateaz ari: bakardadeaz, segurtasun ezaz, oinarritzko eskubideak galtzeaz... Eta indarkeria isila jasateaz hitz egiten dugu, emakumeak, migratuak, arrazializatuak edo genero identitateagatik oztupo askori aurre egiten dietenak indar handiagoz kolpatzen dituenak.

Euskal Autonomia Erkidegoan, nahiz eta 2022ko datu ofizialek adierazten duten etxerik gabeko pertsona gehienak gizonak direla, %78,2, eta emakumeak, aldiz, %21,8. Zifra horiek errealitate konplexuak ezkututzen dituzte, eta ez dira zenbakietara mugatzen. Bizitegi bazterketa egoeran dauden emakumeek gehiago ezkutatzeko joera dute, kaleko estatistiketan ez agertzeko eta espazio prekarioetan, denborazkoetan edo ez seguruetan bizirauteko, indarkeria, abusu edo eraso egoerak saihesteko (estalitako etxegabetasuna ere esaten zaio).

Gainera, datuek erakusten dute bizitegi bazterketak lotura estua duela gure he-

rrialdeko genero desberdintasuneko beste egiturazko faktore batzuekin: pobreziak eta gizarte bazterketaren arriskuak milioika emakumeri eragiten die, bereziki, guraso bakarreko etxeetan, migratuetan edo enplegu prekarioak dituztenetan. Autonomia ekonomikoa ahula denean, etxebizitza egonkor bat eskuratzea are zailagoa bihurtzen da, eta bazterketaren ateak indar handiagoz irekitzen dira.

Bestalde, Bizkai, Araba eta Gipuzkoako etxerik gabeko pertsonentzako baliabideei buruzko estatistika berriek erakusten dute arreta eta eskura dauden zerbitzuak areagotu egin direla, zentro eta zerbitzu espezializatuetan egunero 4.200 pertsona baino gehiago artatzen baitira, eta horietatik %34,4 inguru emakumeak dira. Horrek, era berean, zalantzan jartzen du bizitegi bazterketak zer nolako lotura duen aurreko egoerekin: genero indarkeria, langabezia, behartutako migrazioa edo egiturazko diskriminazioa etxebizitza eta enplegua eskuratzeko sistemetan.

Emaus Gizarte Fundazioan eta BesteBi bezalako plataformetan egunero lan egiten dugu bizitza duin bati eusten dioten sareetatik kanporatuak izan diren pertsonen laguntzeko. Badakigu autonomia-rako bideak aldi baterako ostatuak baino gehiago eskatzen duela: entzuten duten begiradak behar ditu, gizarte laguntza in-

tegrala, osasun mentaleko eta enpleguko zerbitzuetarako sarbidea, eta bazterkeriak kaltetutako gizarte loturak lehengoratzten dituzten sareak. Gure konpromisoa da benetako berdintasuna lortzea eta larrialdia bizi aukera duinean bihurtzea.

Gure ustez, etxegabetasunari eta bizitegi bazterketari buruzko begirada aldatzea, batez ere generoarekin, identitatearekin edo migrazio baldintzekin gurutzatzen denean, bizitza bakoitzeko gizatasuna erdigunean jartzeko modu bat da. Ez mugatu bakarrik zifretara, baizik eta pertsona bakoitza etxe bat galtzera eramaten duten testuinguruak ulertzea. Etxebizitzarik eza salatzeaz gain, pertsonak — eta bereziki emakumeak — babesik gabe, baliabiderik gabe eta bizitzeko eta haz teko leku segururik gabe geratzeko ahalbidetzen duen sistema bat zalantzan jartzea.

M8 honetan, gogora dezagun berdintasuna ez dela lege edo politika isolatuekin bakarrik lortzen: komunitatean eraikitzen da, diskriminazio mota anitzak aitorzen ditugunean eta modu artikulatuan lan egiten dugunean, pertsona bakoitzak etxe duina, egonkorra eta indarkeriarik gabek izateko eskubidea izan dezan. Izan ere, gizarte zuzenago bat neurtzen da bazterretan daudenak zaintzen dituen moduaren arabera, ez gailurrera zenbat iristen diren kontuan hartuta. ●



MIHIGINTZA

Uste baino gutxiago dakigu, baina uste baino gehiago erabiltzen dugu



TXERRA RODRIGUEZ
Hizkuntza aholkularia
blogak/argia.eus/txerra-rodriguez

Edozein hizkuntzaren biziberri-tzea (edo galbidea) aztertzeke hiru izan ohi dira ardatz nagusiak (nazioartean zein gurean): gaitasunak, praktikak eta jarrerak. Izenekin saltsa dago, batzuetan ezagutza, erabilera eta motibazioa berbak agertzen dira, singularrean, baina nik nahiago pluralen erabili, batez ere, errealtatearen konplexutasuna hobeto islatzen duelako pluralak, nire ustez. Tira, sarrera honek helburu bakarra du: zein dugu euskararen egoera gaur eta hemen jarrera, gaitasun eta praktikei dagokienez?

Jendartean zabalduen dagoen ikuspegiaren arabera, euskarak egoera onena du gaitasunetan, ezagutzan, eta okerrean praktikan, erabileran. Askok aurreratu da azken urteotan gaitasunetan, baina horrek ez du ekarri erabileran pareko aurrerabiderik. Horixe izan da orain arte gehien zabaldutako mantra. Baina ... Iñaki Iurrebasoren ikerketek hankaz gora jarri dute ideia hau. Iritzi-usteean oinarritutako balorazioak oso ohikoak dira gurean (ez ditut gutxietsi gura), baina uste dut beharrezkoa dela egoerari eta bilakaerari buruzko oinarria sendoagoa izatea. Eta Iurrebasok milaka datu demolingüistikoekin fintzen du bere analisia.

Hizkuntza gaitasunean euskara ahul dagoela erakusten dute datu horiek. Hizkuntzen ezagutzari begiratu zaio, baina errealtatea osorik aztertu behar da, eta pertsona bakoitzaren euskara eta erdara gaitasunak begiratu. Horren arabera, euskara dakigunok %30 gara Euskal Herri osoan, baina euskara errazen aritzen direnak guztira 210.000 pertsona dira, biztanleria osoaren %8. Askok hazi da azken urteotan euskara dakigunon kopurua, baina ez da apenas areagotu errazen euskaraz aritzen direnena. Gero eta herritar gehiagok ulertzen dugu euskara, gero eta gehiago gara hitz egiteko gai, baina erraztasunez egiten dutenen multzoa apenas ari da hazten.

Gaitasunak baldintzatzen du erabilera: gaitasunik gabe ezin da erabili. Gaur egun, erabilera %17 inguruan dago trabatuta. Kontuan izanda euskaldun gehienak errazago aritzen direla erdaraz eta sarritan ezinezko dela euskaraz aritzea, datuek erakusten dute erosotasunagatik espero zitekeena baino gora dagoela erabilera. Hortaz, hiztunek euskaraz aritzeko aukera dutenean, hautu hori egiten dute euskaraz erosoan mintzatzen direnek eta erdaraz erosoago aritzen direnek ere toki ohar-

garria egiten diote euskarari (Iurrebasok egindako kalkuluen arabera, erosotasunak aginduko balu, erabilera %9ren inguruan egongo litzateke eta %17 ia bikoitza da).

Jarrerak aipatu ditut nik hirugarrenez, baina Iurrebasok atxikimendu berba dabil. Eta hirugarren honetan zelan gaitza? Bere ustez, sendoen dabilkigun ardatza dugu hau. Euskararen aldeko jarrera horrekin baino ez daiteke ulertu hiztunek eroso zaiena baino gehiago erabiltzea batez beste. Ikuspegi hori, gainera, baieztatu egiten da iritziei buruz egindako ikerketekin. Atxikimendua ezinbesteko tresna izan da euskararen indarberritze prozesuan eta ezin da ulertu gaur egungo egoera elementu hori barik.

Labur-zurrean hori da egoeraren diagnostiko nagusia (askoz datu gehiago eta askoz hobeto azalduak 'Esnatu ala hil' liburuan, Iñaki Iurrebaso eta Garikoitz Goikoetxeak idatzita). Aurrera begirako proposamenak ere dakartza liburuak, baita sozializazioari, hizkuntza bilakaerari, aldaketa demografikoari eta lurralde nagusitasunari buruzkoak ere. Baina horietan sakondu gura duenak liburu dibulgatibo horretan bilatu beharko du argi gehiago. ●

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zerbitzu Berriak
Logopedia
Podologia
Kiropraxia

clínica dental ZAINDUZ
hortz klinika

Txanieri etorbidea, 9 - Loria | Aragoi erakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 94 454 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

LEIRE BEGOÑA

ULEAPAINDEGIA

MUNICIALE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai jarraia Facebook-en

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak

640 26 84 15
94 455 42 15
Garaioitza, 74
Lezama



Tobera (Trebiño)



Tuesta (Araba)



Cornezuelo (Burgos)

**IÑAKI OLABARRIETA
JOSE ANGEL MENTXAKA**

MENDITIK PATXADAZ

Erotismoa ermitetan

Arrigorriagako Abrisketa auzoan dagoen ermita elegantea bisitatuko dugu oraingoan, Bizkaiko zaharrena ei dena. Eta bertan, harrian zizelatutako irudi bati ondo erreparatzen badiogu, konturatuko gara gaur egun erotikoa deituko genuen irudia dagoela. Zer dela eta dago hor? Saiatuko gara gaian apur bat sakontzen.

Duela ez hainbeste, Elizak gaur egun baino indar gehiago zeukanean, ikastetxeetan mutilak eta neskak banatuta zeuden, baita eliza barruan ere, ia derrigorrezko zenean meztara joatea, gizonezkoak alde batean jartzen ziren eta emakumezkoak bestean, nahastu barik. Jakina, sexuaren gaia guztiz tabua zen, eta aipatzeak bakarrik kokoteko bat baino gehiago jasotzeko arrazoia zen. Ostersa, mendiko ibilbideetan Erdi Aroko ermitaren bat aurkitu, eta sarri, hauen kapitela zein beste eskulturetan irudi erotikoa aurkitzen ziren. Baina ez zen bekatua? Nola da posible?

Horren inguruan teoria bat baino gehiago dago. Garai horretan jende xeheak ez zekien irakurtzen eta harrizko irudien zein margoen bidez zabaltzen ziren mezuak. Batzuen ustez bekatua adierazteko irudiak ziren, seigarren mandamentuari kasu eginez. Beste teoria baten arabera garai horretan guztiz normaltzat hartzen ziren ugalketari lotutako horrelako irudiak. Kontutan hartu behar da ere ermita

eta eliza askok jabe zibilak zeuzkatela, herrietako jauntxoak, eta hauen aginduz egiten zituztela irudiak. Badago hirugarren teoria bat: honen arabera, XII. mendean, eraikuntza erromaniko garaian, Calixto II Aita Santuak Letraneko kontziliara deitu zuen (1.123 urtean) eta bertan, beste gauzen artean, kleroaren zelibatua agindu zen. Teoria honen arabera, erabakiaren kontrako matxinada estali bat zabaldu zen kleroaren artean, eta horregatik, hainbeste sexu harreman esplizitu agertzea. Dena dela, aginduak ez zuen arrakasta handirik izan, eta Trentoko kontziliara arte (1545-1563) ez zen gauzatu. Argi dagoena da, gaurko begiekin ez zaigula errez egiten garai horretako iruditeria ulertzea.

Ibilbidea Arrigorriagako Mendikosolo parke ederraren aparkalekuan hasi dugu. Parkeraino jaitsi, eta urtegiaren ondotik egin dugu aurrera, bertan zegoen esplosiboen fabrika baten aztarnak oraindik ikusi daitezke. Erreka gurutzatu marka zuri-horiak jarraituz, eta menditik gora bidezidor politetik joan gara. Errepidera

helduta, laster eskuinean dagoen estratatik jarraitu, ate pare bat gurutzatu, eta XII. mendeko Abrisketako San Pedro ermitan agertu gara. Ekialdeko horman leiho prerromaniko berezia dauka, erditik mutilatuta egon arren. Hegoaldean, antzinako sarrera baten gainean, bi irudi agertzen dira eta batean bikote bat larrua jotzeko posizioan dago. Oraingo sarrera, erromanikoa ere, mendebaldean dago. Iaz, ermita inguruan indusketak egin ziren eta nekropoli bat agertu zen. Arkeologoen ustez, ermita atzeko larrean, herrixka bat egon zitekeen, oraindik induskatu barik dagoena.

Aurrera jarraitu, eta beti ezkerretara eginez zirkulua itxi dugu. Igo garen bidezidorretik jaitsi beharrean, ezkerretara egin eta pista zabal batetik jaitsi gara. Bidean ur-jauzi polit bi aurkitu daitezke, urte sasoiaren arabera, ur gehiago edo gutxiagorekin. Ia amaieran gaudela mezezi du Landaederraga hilerri bitxian sartu-irten bat egitea. Bost kilometro eskas eginda, hasierara itzuli gara. ●



Momediano (Burgos)



1 Abrisketako leihoa eta irudi erotikoa



Ibilbidea

Distantzia: 5 km

Desnibel positiboa: 133 m

Eskuratu
hemen
ibilbidearen
track-a



Ama's
ileapaindegia
Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburuntza:
8:00-13:30
Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
944 520 419





WIKIMEDIA / MOTTAW

ESTITXU PÉREZ CASTRO

✉ txiribita_mundi

HERBARIOA

Berakatza

Allium sativum. Baratzuri gordina osasunerako landarerik erabilgarrienetako bat da, elikadura/medikuntza osagai nagusia da, ez da falta behar etxetan, ezta botikinean ere. Baratzuria *Allium* generokoa da, eta bertan tipula, porrua, txalota, tipulina eta tipulina ere aurki ditzakegu.

Hostoak lehortzen direnean eta hori kolorekoak jartzen direnean, baratzuri erraboilak landare osoarekin lurretik ateratzen dira, sortetan lotzen dira eta itzalean lehortzen uzten dira.

EZAUGARRI DIETETIKOAK

Proteinak, mineralak (bereziki sufrea), B eta C bitaminak, karbohidratoak eta zun-tza ditu. Gure plateretan baratzuria eta hostoen kimu samurrak erabiliz, gaixotasun pila bat prebenitu ditzakegu. Baratzuria oso onuragarria da xehatuta eta gordinik kontsumitzen bada; izan ere, zenbat eta gehiago sukaldatu, orduan eta propietate sendagarri gehiago galtzen ditu.

EZAUGARRI MEDIZINALAK

Antibiotiko natural handia da, jarduera antiseptiko eta antioxidatzaile handia du.

BARNE-ERABILERA SENDAGARRIAK**Zirkulazio sistema**

- Bihotza babesteko eta zirkulazio sistamarako oso ona da.

- Maiz erabiltzeak globulu gorriak sortzen laguntzen du, zelulen zahartzea atzeratzen du, tabakoak odol hodian eta bihotzean dituen ondorioak indargabetzen ditu, eta estresa eta depresioa murrizten laguntzen du.
- Odoleko kolesterola eta azukrea erregulatzen ditu.
- Zirkulazioa, oro har, hobetzen denez, odola jariatzen eta tronboak prebenitzen laguntzen du, eta hemorroideak murrizten.
- Hezueria sendatzen laguntzen du: odol-leko azido urikoaren maila murrizten du. Baratzuria hartu eta baratzuriarekin kataplasma bat ere egin dezakegu eta mindutako eremuan jarri.

Arnas aparatua eta sistema immunea


- Arnasketa hobetzen du. Antialergikoa da. Immunitate sistema indartzen du.
- Birusaren aurkako eragina du katarroan, gripean, bronkitisean, faringitisean, arnas aparatuko infekzioetan... Eragin antiseptikoa duenez, eta espektoratzaila denez, mukositatea kanporatzen laguntzen du.

Digestio-aparatua

- Hesteetako flora mantentzen eta kontrolatzen laguntzen du, bakterio patogenoen ugartzea saihestuz. Urdaileko gasak, beherakoa edo astuntasuna daudenean erabiltzea gomendatzen da.
- Digestio aparatuko parasitoak garbitzen ditu.
- Digestio jariakinak areagotzen ditu eta behazun jariakinak estimulatu dituzte. Horrek gibelari mesede egiten dio digestio prozesu osoan.
- Arazketan laguntzen du, eragin diuretikoa baitu.

Nola hartu:

Baratzuri gordina antibiotiko hobe da, baina baratzuri egosia digestiboagoa da. Baratzuriaren propietate antibiotikoak indartu egiten dira baratzuri bat moztu edo zanpatzen dugunean, eta pausatzen uzten dugunean. Minutu batzuk igaro ostean, har dezakegu. Baratzuri gordin xehatu bat hartzea gomendatzen da lehen aipatutako edozein gaitzetarako. Baratzuri lehor kapsulatua ere har daiteke; horrela, ez du errepikatzen eta ez dio eragiten urdailari.



WIKIMEDIA

KANPOKO ERABILERA SENDAGARRIAK

- Otitisa eta belarriko infekzioa. Oleatoa erabili.
- Intsektu ziztadak. Ziztada bat desinfektatzeko, baratxuri moztu bat leunki igurtzi.
- Garatxoak kentzen ditu: baratxuri hortz batekin igurtzi garatxoaren eremuan, egunero.
- Aftak eta gingivitisa prebenitzen ditu. Baratxuriz eta ozpin zuriz ahoa irakuztea.
- Haginetako mina. Mastekatu baratxuri hortz bat edo eman pixka bat mindutako haginaren gainean.
- Ezpainenetako herpesa. Berogailuei baratxuria eman, herpesa kontrolatzeko.

Baratxuri oleatoa:

Mazeratu hori kanpotik erabiltzen da otitisaren, belarrietako minaren, eztarriko infekzioen eta minaren, gripearen edo katarroaren ondorean edota larruazaleko infekzioen kasuan.

Osagaiak: 7 baratxuri hortz, 125 ml oliba olio birjina.

Elaborazioa: Kristalezko potu batean, gehitu ondo txikitutako baratxuri hortzak eta estali oliba olio birjinarekin edo ekilore olioarekin. Itxi estalkia eta utzi eguzkitan. Utzi egun batzuk mazeratzen, gehienez 15 egunera arte. Mugitu egunero. Denbora

igaro ondoren, ondo iragazi eta gorde olio kristalezko potu batean, itogin batekin.

Erabiltzeko modua: Tratatu beharreko eremuan masaje leun batekin eman, belarrietako mina edo otitis izanez gero, berotu olio epeldu arte, baina ez bero, eta bota 2 edo 3 tanta belarritik gertu, eta banatu kotoi garbi batekin. Kontuz! Ez dut gomendatzen umeei tantak zuzenean belarrira botatzea, hobe da kotoi bat busti eta kaltetutako eremuan jartzea, edo olio belarriaren inguruan masaje leun bat emanez aplikatzea. Egunean bizpahiru aldiz errepikatu.

HORTUAN

Baratzean ereindako baratxuriak beste landare batzuen hazkundera estimulatu eta intsektu kaltegarriak uxatzen ditu.

BITXIKERIAK

Landare hau erritu magiko-erlijiosoekin lotu duten kultura askok eskegita dituzte baratxurizko lepokoak, bai etxeetan, bai ganaduan, espiritu gaiztoak urruntzeko.

KONTRAINDIKAZIOAK

Ez da baratxuri askorik hartu behar kirurgia baten aurretik, ezta gastritis da goenean edo medikamentu antikoagulatzaileen bat hartzen ari garenean ere. Ez erabili edoskitzaroan. ●

Landareak batzeko aholkuak

Orokorrean: hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zerbait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezen; ez moztu loreen %20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune bestuetan edo parke naturalatan.

Non: larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

Noiz: goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

Materialak: eskularruak, artaziak, paperezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...

ELORRIETA
INSTALACIONES ELÉCTRICAS

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
INSTALAZIOAK, MANTENTZE-LANAK,
KONPONKETAK...
MATERIAL ELEKTRIKOA SALGAI

info@elorrietainstalaciones.com 639 582 547
Uribe kalea 12 behea · Derio 944 540 386

PATXI
OSTALARIETARAKO ZERBITZU INTEGRALA

40 URTE ZUGANDIK GERTU

www.patxi.koop.eus

f t i y

Neimber Poligonoa / Etxezarre 4, 48170 / Zamudio / 944 522 581 / info@patxi.koop.eus

aldeko
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Uribe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

—Especialitate guztiak
zentro bakar batean
—Aurrekontua doan

—Especialitateak:
umeak



SUKALDARITZA

Arroz esnez beteriko sagar hoditxoak Aurregoiti Jatetxearen errezeta



OSAGAIK:

- Golden modalitateko sagarra
- Kanela
- Azukrea
- Koñaka
- Litro bat esne
- 100g arroz

LAU PAUSU DIRA:

1. Moztu Golden modalitateko sagarra laukitxo txikietan eta jarri egosten kanelarekin, azukrearekin eta koñak apur batekin. Bigun dagoenean sutik kendu konpota. Bestetik, gozoegia egin beharra dago, horretarako erabili 100g azukre eta 100ml ur. Kolore iluna hartu aurretik, atera.

2. Moztu sagarra xafletan eta jarri labeko paperaren gainean. Gainetik lehen prestatutako gozoegia jarri behar zaio. Labean sartu 10 minutu inguru, gorritu arte. Labetik atera, eta kanutillo forma eman bero daudenean, hozten direnean forma hori mantentzeko.

3. Beste alde batetik, ohiko arroz esne bat

prestatu beharra dago. Horretarako, erabili litro bat esne, 100g azukre, 100g arroza eta kanela pixka bat. Ohi bezala egin behar da da arroz-esnea.

4. Amaitzeko, beste kanutillo formako sagar xafalak arroz esnearekin, jarri inguruan sagar konpota eta apaindu, nahi izatekotan, kanela apur batekin.

Aurregoiti Jatetxea



1957. urtetik, Loiuko Lauroeta auzoan dago kokatuta Aurregoiti Jatetxea. Etxeko bazkaria eskaintzen dute: txuleta, indabak, menestra, lebatza saltsa berdean, onddoak plantzan... Eguneko menua daukate astelehenetik ostiralera eta karta asteburuetan.

Astelehenetik eguenera	10:30 - 17:00
Barikuetan	11:30 - 00:00
Zapatu eta domeketan	11:30 - 00:00

Lauroeta etorbidea, 27
48180 · Loiu · 944 532 440

DENBORA-PASAĖ

ZAZPI EZBERDINTASUNAK

Topatu zazpi ezberdintasun Derioko argazki honetan. Zer falta da? Zer dago sobera? zer dago aldatuta?



APIRILEKO AGENDA

1, eguaztena

16:00 **KZguneko monitorea** SONDIKA
Hitzordua eskatu behar da

5, domeka

09:00 **Marurira irteera** DERIO
Txorierri pedalak emoten

12, domeka

08:00 **Malkorrara (Araba) irteera** DERIO Untza Mendi Taldea.
Nagusien Etxean.

09:00 **Munitibarrera irteera** DERIO
Txorierri pedalak emoten

10:00 **Lutxana-Mungia trenbide zaha-
rra ibilbide gidatua** DERIO San Isidro
elizan hasita. Izena eman behar da

14, martitzena

11:00 **Memoria lantzeko tailerra**
DERIO Kultur Birikan

17:00 **Azken borondateen
dokumentua egiteko tailerra**
DERIO Kultur Birikan

18:00 **ZEOS Programa** ZAMUDIO
Zamudiotorren

18:30 **Irakurketa dramatizatua
lantzeko tailerra** LARRABETZU
Ludoteka gaineko aretoan

15, eguaztena

17:30 **Izan, Sentitu eta Zaindu adin
desberdinetako emakumeentzako
topaketa** DERIO Kultur Birikan

16, eguena

10:00 **Bizkarra lantzeko tailerra**
DERIO Kiroldegian

19:00 **Katona berbagai Antxiñe
Mendizabalen eskutik** LARRABETZU
Ludoteka gaineko aretoan

18, zapatua

10:00 **Gohierri Eguna** ERANDIOGOIKOA
Gohierri Sokatira taldearen eskutik

19:30 **Sondika Pintxotan: Arrain pintxoak**
SONDIKA Animazio musikatuarekin

19, domeka

08:00 **Gorbeiara irteera** DERIO Untza
Mendi Taldea. Nagusien Etxean

09:00 **Laidara irteera** DERIO
Txorierri pedalak emoten

21, martitzena

18:00 **ZEOS Programa** ZAMUDIO
Zamudiotorren

18:30 **Irakurketa dramatizatua
lantzeko tailerra** LARRABETZU
Ludoteka gaineko aretoan

22, eguaztena

10:00 **Ibilbide osasungarriak** SONDIKA

23, eguena

19:30 **Cirque du Soleil ikusteko irteera**
ZAMUDIO Izena eman behar da

25, zapatua

20:00 **Sabes que las flores de plástico
nunca han vivido, ¿verdad?** SONDIKA
Liburutegian

18:00 **ZEOS Programa** ZAMUDIO
Zamudiotorren

26, domeka

07:30 **Salinillas de Buradonera irteera**
DERIO Untza Mendi Taldea. Nagusien
Etxean

08:30 **Elgetara irteera** DERIO
Txorierri pedalak emoten

28, martitzena

17:00 **Azken borondateen
dokumentua egiteko tailerra**
DERIO Kultur Birikan

29, domeka

09:00 **Goiuriara irteera** DERIO
Txorierri pedalak emoten

ZAMUDIOKO GAZTE EGUNA

18, zapatua

13:00 **Trikipotea**

15:00 **Herri Bazkaria**

17:00 **Gazte Olinpiadak**

19:00 **Ostikda Elektrotxaranga**

22:30 **Kontzertuak**

Enbata Lorade

Maruxak

Dj Denz

BLB

DJ Irati

00:00 **Ekitaldia**



Haz Gaitezen

Gehiagora heltzeko.
Egin zaitez AIKORLAGUN

aikor.eus/babestu

aikor.

Kress®

Oraindik bedarra mozten?

Pausua emoteko ordua heldu da.



Utzi mozten, hasi disfrutatzen.

Etorkizuna hemen da. Zure belardia beti txukun
KRESS roboten RTKⁿ eta Vision IA teknologiari esker.

EYE easy yard exploration
PILOT

**Zure lorategian antenarik behar ez duen
satelitez gidatutako robota.**

www.kress.com/es-es

HOBBY-LUR

946764867 - 635850253 | www.hobbylur.com